

pertsonaiak
makala
karen amaia

GEU

2,40 €

2007ko maiatza

173

gaiak
geu15. jaialdi-gala
tmeo
gaztezulo

zinea
neff zinemaldia
bidaia
bizibidaia





Sail Ofiziala Luzemetriak • Cortada
Gonbidatutako Herria Polonia
Zikloak Zinema eta Musika • Latin • Bitxiak • Haurrak
Horretaz gain... Kontzertuak • Zinema eta Musika ikastaroa

www.neffestival.com



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Arabako
Foru Aldundia




Diputación
Foral de Alava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Caja Vital  Vital Kutxa

CULTURAL álava
araba KULTURALA



estitxu breñas glz. de zarate

geu aldizkaria & elkartea. 15 urte euskara dastatu geurekin

1992-2007. 15 urte euskara gasteizko ahalik eta bazter gehienetara eramaten. zabaltasunez, kalitatez, modernitatez. kultur ekintzen bidez, elkartearen kasuan. gure aleak hilero gasteiztik euskal herrira hedatuz, aldizkariarenean; etxeetan, kioskoetan, liburudendetan. gasteizen, araban, euskal herrian.

geu, gasteiz euskalduna, euskaltzalea. hori dugu abiapuntu eta helburu.

erabilpena, bidea. euskararen erabilpenerako esparruak sortzean datza gure jarduera: euskal hiztunentzat, bidean daudenentzat...

erakarri, gure oinarria. askotariko lagunak euskararen mundura erakartzea, euskararen mundua dastatzea, euskara dastatzea... ardoaren modura. dastatu lehenengo, gozatu gero. euskararekin gozatzea, euskaraz gozatzea. aukera paregabea delako!

zu ere bazara geu. hori dugu lelo, geu denontzat baita. euskara denona, euskara geurea.

une berezia dugu honakoa, behar bezala ospatu beharrekoa. hori dela eta, ale berezia dakarkizuegu oraingo honetan, kolorez beterik, orrialde gehiagoz osatua... etorkizunean nahi genukeen aldizkariaren isla.

baina ez hori bakarrik, maiatzaren 11n zita berezia baituzue gurekin batera denona den urteurren hau ospatzeko: etor zaitezte artium museoan antolatu dugun fusioz beteriko jaialdi-gala anitzera. 21:00etan hasiko da, ez huts egin!

kartel erakargarria osatzen saiatu gara, guztion gozamenerako. estilo uztarketa bilatu dugu, euskara bizitzaren arlo guztietan uztar daitekeen adibide gisa; bildutako artista guztiek bat egin nahi izan dute geu eta euskararekin. eta zuk berdin egitea nahi genuke.

euskara eta euskaraz dastatzeko gaua izango da, giro bero eta alaian. animatu zu eta ekarri lagunak, bikotekidea, familia... euskarak zure presentzia merezi baitu!

15 urteotan horri so lan egin dugu. eta hemendik aurrera ere horretan jarraituko dugu.

1992-2007. 15 urte. eskerrik asko geu-engan sinetsi duzuenoi.

sumarioa 173

16 MAKALA

ZARAUZKO
HONDARTZATIK
GASTEIZKO
BARRUALDERAINO
DATORREN EUSKAL
ELEKTRONIKA



22 TMEO. 20 urte

KINI ETA SANTI ORUE, TMEO-KO
ARDURADUNAK



32

NEFF

FERNANDO
LOPEZ CASTILLO,
NEFF-EKO
ZUZENDARIA



SEXUA HIRIAN

45

GAZTEZULO

TXULOTIK ZULORA,
GAZTEAK TXOKO BILA



52

KAREN AMAIA

FRESKOTASUNA BILDUZ PAISAIA
SURREALEN MUNDURAT



70

BIZIBIDAIA

PEDALEI ERAGINEZ
EUSKAL HERRIARI BIRA



40 JAIALDI GALA ARTIUM maiatzak 11



- 8 zer egin
maiatzeko agenda.
geu. 15 urte. maiatzak 11, jaialdi-gala artium-en
- 12 kaletik
geu-k 15 urte & euskara gasteizen
- 16 geupertsonaia
makala
- 22 geugaia
tmeo. 20 urte
- 28 batbitan
jakin eta jolas
- 30 euskaltasunean
garazi zaldunbide
- 32 geugaia
neff zinemaldia
- 38 idazleak. geu15
edu zelaieta, jon arretxe, gerardo markuleta,
karmele jaio, patxi zubizarreta,
lourdes oñederra, oskar espinosa
- 42 euskaltasunean
iñaki ziarsole
- 44 proposamenak
liburuak & cd-ak
- 45 bathirutan
gaztezulo aldizkaria
- 48 kronika
abtx07: oihane perea txapeldun
- 50 batbitan
euskonews gaztea

- 52 arte txokoa
karen amaia. irudimenezko paisaiak
- 56 gazteen zuloa (gaztezulo)
ballet biarritz junior
- 58 haur&gazte literatua
txabi arnal
- 60 historia&euskara
kike fdz de pinedo. gasteizko alde zaharra 1562an
- 62 komikia
iñigo sarasola
- 64 errejeta
clarete jatetxea
- 66 laburrak
jazzaldia, peritonitis, araba euskaraz...
- 69 araba bixotzian
mundina
- 70 bidaia
euskal herria bizikletaz
- 74 orribatean
alboka eguna. ekainak 2
- 76 batbitan
gidatu
- 78 historia zutabea
erlantz urtasun

iritzi zutabeak. geu15




maite lekue
txipi ormaetxea
maite mendiburu
erlantz urtasun
kike fdz de pinedo
txabi arnal
estitxu breñas glz de zarate

GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua
kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu
breñas glz. de zarate | aldizkariako batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune velez de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak:

josune velez de mendizabal, edurne begiristain, maite lekue, saioa fdz de arangiz, ainhua arriaga, narioa cuesta eta anakoz amenabar | azala: edorta sanz | argazkiak: edorta sanz | bestelako
irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orratzketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez |
umorea: iñigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan: edu zelaieta, jon arretxe, gerardo markuleta, karmele jaio, patxi zubizarreta, lourdes
oñederra, oskar espinosa, txipi ormaetxea, maite mendiburu, erlantz urtasun, kike fdz de pinedo, txabi arnal, mundina, clarete jatetxea,
gaztezulo | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | harpidetza-publizitate laguntzailea: edurne
begiristain | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau
paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



www.geugasteiz.com



txipi ormaetxea

EZIN ATZERA EGIN

Badira, bai, kezkatzeko arrazoiak: euskal kultura dela, euskara dela, politika-kontuak direla... Baina ez nuke ilunetik jo gura; oraingoan nahiago dut udaberriko argitasuna.

Ez naiz gasteiztarra, ezta arabar petoa ere, nahiz eta jatorria Araban dudana (Aramaio Araba bada. Eta bada, ezta?). Edozelan ere, kontuak atera eta ohartu naiz nire bizitzaren erdia baino gehiago daroadala Gasteizen. 35 bat urte badira (hainbeste?) hemen nintzela, ikasten. Orduko datu zehatzik ez daukat, bakarrik ene oroimen herdoilduak gogoratzen duena; inpresionismo hutsa, hortaz. Klasean euskaldun bakarretakoa nintzen, bakarra ez banintzen. Eta ikasle mordoxka ginen. Bat bakarra gogoratzen dut euskara ikasten, Iñaki 'Zaraitzu' adiskidea. Eta kalean, zer? Ez dizut ez dakizunik esango: euskal kulturak apenas zuen lekurik hemen, euskara arrotza zen... Euskara kalean entzutea gaur egun gaztelania ez aditzea bezain gaitza zen, eta oso gogoa dut euskarazko berbaren bat entzuteak sorrarazten zidan zirrara.

Geroztik euri apurtxo bat egin du. Eta euskalduntasunean aurrera egin dugu, eta ez gutxi. Betikoa: ez orduko ni gazteak espero eta nahi zuen adina. Gazte zarelarik, denbora laburrean asko espero eta gura duzu, ez dakit nongo herriko abiadura bera edo handiagoa opa diozu zeure herriari, urte gutxian ikusten duzu herria aske eta hizkuntzaren jabe... Baina errealitateak beste tempo bat du, behin eta berriz erakusten digunez.

Oroimenari tiraka, ia 25 urte atzera eginez, gazte-talde bat ikusten ari naiz zerbait egin guran euskararen alde. Eta handik lasterrera fruitua: Gasteizko Bertsolari Eskola. Urte batzuk geroago Bagare Elkartea sortu zen, eta geroago GEU. GEUren ideiarik interesgarriena eta emankorrena GEU aldizkaria sortzea izan zen (hasieran GEU GASTEIZ eta 85. zenbakiaz gero GEU). Eta, begira, esku artean duzun hau 173. zenbakia da eta aurki beteko ditu 15 urte aldizkariak. Zorionak

Beste hainbat arlotan ere (ikastolak, euskaltegiak, unibertsitatea...) lan eskerga egin da euskalgintzan. Poliki bada ere, aitzina goaz.

Laino beltzak ere ikusten ditut, bai, gure baranoan. Baina gaur egunsenti argiaz geratuko naiz, gozatuko naiz. Uste osoa dut herria eta euskara aurrera aterako ditugula, sinetsi nahi baitut euskaldunok bide luzeko lasterkariak garela. Hala biz!

HISTORIA ARABAN DAGO

Canciller Ayala

ESPAINIAKO XIV. MENDEKO PIEZA MULTZORIK HANDIENA BILTZEN DUEN ERAKUSKETA BIKAINA.
...ETA ASKOZ EKITALDI GEHIAGO: ERDI AROKO KONTZERTUAK, HITZALDIK, FALKONERIA...


CANCELLER AYALA
Commemoración VI Centenario

AYALA KANTZILERRA Erakusketa.
2007ko apirilaren 18tik uztailearen 26ra.
Maria Inmaculada Katedral Berria.

Sarbidea Arte Sakroaren Elizbarrutiko Museotik:
K/ Cadena y Eleta z/g GASTEIZ



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

www.alava.net
www.alavaturismo.com
www.cancillerayala.net

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ANTOLATZAILEA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

Erakunde babesle
eta laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteiz
Urdia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Diócesis
de Vitoria



Gasteizko
Elizbarrutia

Alara - Herri



Ayuntamiento de Alaya

Enpresa mezenas-babesleak



Enpresa babesleak



EL CORREO



zeregin euskaraz

GEU ALDIZKARIA & GEU ELKARTEA 15. URTEURREN JAIALDI-GALA EUSKARA DASTATU GEUREKIN

maiatzak 11, 21:00-24:30,

ARTIUM MUSEOAN

musika, antzerkia, literatura, dantza,
bideo-proiektzioak...

ikus. 40-41. orr.



GEU ELKARTEA

GEUREKIN MENDIRA

maiatzak 20, igandea

Bardal (1151m) eta Hayal Gaina (1146m). irteera: lovaina plazatik

ordua: 9:00. arduraduna:

bego (945266812) / maite (945282316)

KULTUR ERROTA. KONTZERTUA

maiatzak 22, asteartea
GARBIÑE

garbiñe insausti hernaniarraren lehen-dabiziko diskoak pop melodikoa du oinarri, jazz ukituak agerian. hamabost urterekin abesten hasi zen neska hirusta records etxearen eskutik dakar orain 'ibilian' lana.

parral tabernan, 20:30



BIZIBIDAIA DIAPORAMA

maiatzak 16, asteazkena

euskal herria bizikletaz: nire lehen bidaia. iraupena 60'

bateragarria al da ama-aita izatea bizikletaz egindako bidaia batekin? zer egiten zaio deigarria ume bati bere lehen bidaian? urrutira joan gabe egin al dezaket bizikletaz bidaia interesgarri bat? euskal herria hobeto ezagutu nahi al duzu?... rosak, mikelek eta ekik galdera hauen eta beste batzuen erantzuna ematen dute hiru zatitan banaturiko ikus-entzunezko honetan.

hikaateneo (pintore kalea, 13), 19:30

IRAKURLE KLUBA

maiatzak 10, osteguna

liburua: Truman Capote, ODOL HOTZEAN, igela 1993

maiatzak 31, osteguna

liburua: koldo izagirre, NON DAGO BASQUES' HARBOUR, susa 1997

KOLDO IZAGIRRE BERTAN IZANGO DA

hikaateneoan (pintore kalea, 13), 20:00

dinamizatzailea: Iban zaldia



>ekainean jorratuko den liburua: Jose Luis Otamendi, EURI KONTUAK, susa 1995

geugasteiz.com

LITERATURA ETA ZINEA. HITZALDIAK

HARKAITZ CANO:

'LITERATURA, GIDOIA, ZINEMA'

maiatzaren 2an, 10:30


ehu-ko arabako errektoreordetzako gela urdinean

(izardui komandantearen kalea, 2 gasteiz)

eusko ikaskuntzak & ehu-k antolatuta

eusko-ikaskuntza.org

GAUEKOAK



ARABAKO BERTSOLARI GAZTEEN TOPAKETA

maiatzak 11

aldabe gizarte etxean, 21:30

sarrera dohainik

'REAL POLITIK'

TAPIAren disko

berriaren aurkezpena

apirilak 25

aldabe gizarte etxean, 21:00

sarrerak: 3 euro / 6 euro, 30 urtetik gorakoentzat / dohainik xtraclub txartela dutenentzat



EUSKAL DANTZA LANTEGIA

maiatzak 11, 18 eta 25

FIMO LANTEGIA

maiatzak 14 eta 8

aldabe gizarte etxean, 22:00-24:00

izena emateko: aldabe gizarte etxean, jarduera hasi arteko epean (8:30-21:00)

vitoria-gasteiz.org

informazioa: 945204009 (9:00-13:00)

gauekoak.com

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa

GORA TABERNA

(gasteizko alde zaharra, 945121452)
KONTZERTUAK EUSKARAZ

PARRAL TABERNA

(gasteizko alde zaharra)
KONTZERTUAK, ANTZERKIA, ERREZIT-
TALDIAK, DIAPORAMAK... EUSKARAZ
asteartero, 20:30ean

BISITALDI GIDATUAK



GATZ HARANA. GESALTA AÑANA
astelehenetik igandera (jaiegunak
barne), 11:00 / 12:00 / 13:00 / 16:00 /
17:00 / 18:00

bisitaldia euskaraz: 10 lagun baino
gehiagoko taldeak
helduak: 3 euro / lagundutako haurrak:
dohainik / taldeak: euro 1
945351111
vallesalado.net

ARTIUM

igandero, 11:30ean

doan [taldeentzat (25 lagun gehienez)
gidari-zerbitzua kontrata daiteke (aldez
aurretik abisatuz. 75 euro orora, sarrera
barne)]
945209010
artium.org

IRUÑA-VELEIA:

945403044 / 652720947
veleia.com

ANDRA MARI KATEDRALA:

945255135
catedralvitoria.com



ARTIUM.

HAURRAK&GAZTEAK&FAMILIAK

argibideak & erreserbak: 945209010

ARTIUMTXIKIA (3-5 urte)

igandeak, 12:30-13:30

GOIZEAN ARTIUMen (5-11 urte)

igandeak; 12:00-13:30

sarrerak: 4 euro (helduak) / euro 1
(umeak). *begiraleak elebidunak dira
eta parte-hartzaileek erabilitako hizkun-
tza erabiltzen dute

UDALEKUAK

ZURE HIRIA EZAGUTU ETA APROBE-
TXATU. ARTEA ETA NATURA

(6-10 urte bitarteko umeentzat)

uztailak 2-27, 9:30-14:00

astebete-2 aste-4 aste

jarduerak elebidunak izango dira
izena emateko epea: maiatzaren 7tik
aurrera (plazak agortu arte)

www.artium.org

LIBURUTEGI BIZIDUNAK

(gonbit-txartelak: jarduerak hasi baino
astebete lehenagotik gizarte etxeetan)

PAPEREZKO ANTZERKITXOEN

LANTEGIA: IÑAKI CARRETERO

maiatzak 4

pilar g.e., 18:00

adina: 6-10 urte / iraupena: 90 min

IPUIN KONTALARIA MUSIKAZ:

IÑAKI CARRETERO

maiatzak 11

arana g.e., 18:00

adina: 2-5 urte / iraupena: 60 min

SOLASALDIA BETAGARRIREKIN

maiatzak 16

arriaga g.e., 19:30

adina: helduak / iraupena: 70 min



SOLASALDIA JON ARRE- TXEREKIN: 'GRIOT'

maiatzak 17

ariznabarra g.e., 19:00

adina: helduak / iraupena: 60 min

IPUIN KONTALARIA: ANA MEABE

'marilurrek 5.722.630 ipuin dakizki'

maiatzak 17

lakua g.e., 18:00

adina: 4-8 urte / iraupena: 45 min



'TINTINENGANA HURBILDU' LANTE- GIA. IÑAKI CARRETERO

maiatzak 21

iparralde g.e., 18:30

adina: 6-10 urte / iraupena: 60 min

IPUIN KONTALARIA: ANA MEABE

'marilurrek aitona koxme salbatu du'

maiatzak 23

abetxuko g.e., 18:00

adina: 4-8 urte / iraupena: 45 min

GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA
Obra Social
Caja Vital Vital Kutxa

IPIIN KONTALARI IRUIDUNA:
AGURTZANE VILLATE & ALAITZ MURO

'baobab'

maiatzak 30

ariznabarra g.e., 18:00

adina: 6-10 urte / iraupena: 45 min

vitoria-gasteiz.org

XIBA 2007
HERRI KIROLEN
TOPAKETA

ekainak 2

foru plazan

euskal herrien arteko 4. joko topaketak:
xiba, harri jasotzea, dantza, lokotxak,
sokatira...

izena emateko: eneko.aif@ikastola.net

xibaaraba@euskalerrria.org



X. IGARTZA SARIA

epea: ekainak 29

idazle berrientzat sortutako literatura
sorkuntza beka: narratibako lanak egiteko
proiektuak aurkeztu behar, jatorrizkoak
eta euskaraz sortuak. irabazleak
6.000 euroko diru laguntza jasoko du
urtebeteko epean idazlan amaitua aurkezteko

beasaingo udala (943 028063)

euskera@beasain.net

AMURRIOKO ANTZOKIA

'AIARA OHOLTZARA' IKUSKIZUNA

maiatzak 5, 19:30

aiara eskualdeko ikus-entzunezko zenbait taldek antolatutako ekitaldia

'BEGIBISTAN 07'

AMURRIOKO I ZINEMA ASTEA

maiatzak 17-20

film laburren lehiaketa & NEFF zinemaldiko hainbat film ikusteko aukera

ARTZINIEGA.
LITERATURA EUSKARAZ
'TXIKIAK LIBURUTEGIRA'
EGITASMOA

maiatzak 3, 10, 17, 24, 31, 18:30

eskualdeko gaztetxoek literatura gerturatzeko egitasmoa. jokoen bitartez liburu ezberdinak ezagutuko dituzte



LABURMETRAIA LEHIAKETA.
ARABA EUSKARAZ 07

epea: maiatzak 17

ikastoletako dbh & batxilergoko ikasleei zuzendutako lehiaketa / gaia: trebiñu enklabearen kokalekuaz hausnarketa bat proposatzea da asmoa / saritutako lanak araba euskaraz jaiari izango dira ikusgai. 945373185

araba-euskaraz.org

EZTABAIDARAKO MAHAIK. EGK

maiatzak 10, 18:30

ideologia, lurralde eta adin ezberdinetako gazteen iritzia jasotzea helburu, bake prozesuan lagungarri izan daitezkeen ekarpenak egitea bultzatu nahi du bilerak

lekua: EGKren (euskal gazteriaren kontseilua) egoitza. izena emateko: 943429767 (maiatzak 7 baino lehen)

bakea@egk.org

GASTEIZKO GAZTE-
TXEAREN 19. URTE-
MUGA

maiatzak 3

DIAPORAMA:
SULAWESITIK

(INDONESIA) BIZI-
KLETAZ (20:00)

ANTZERKI KABARE-
TA (21:30)

maiatzak 4

KONTZERTUA:

Lendakaris muertos
& STUPENDA JONES

(21:30)

gaztepropa@sorginak.com

KONTZERTUA
NEUBAT

maiatzak 16, 19:00

'stereosaurus' lan berriaren aurkezpena arabako campusa

ARABATAKADA 07

ZEIA MAYS, OBRINT PAS, M.A.K.,
MIKEL EGILUZ...

maiatzak 17, 11:00etatik aurrera

(sarrera doan) arabako campusa

KONTZERTUA
LOS DELGÁS

maiatzak 4

circulon, 23:00

sarrerak: 6 euro (taberna berri, parral, zuloa)



ESKOLA ETA IKASTOLA
EZBERDINETARAKO
BEGIRALEAK BEHAR DITUGU

- * Euskara beharrezkoa da.
- * Egunean 3-4 ordu.
- * Kurrikuluma:

rrhh.urb@auzolagun.com



kaleetik

APAINDURA



Zerkabarren kalea (Cercas Bajas), 27

Tl.: 945 14 41 95

GASTEIZ

GEU-k 15 urte

- 1.- GEU ALDIZKARIA ETA ELKARTEA EZAGUTZEN DITUZU? NOIZTIK?
- 2.- ZER DERITZOSU GEUREN EKIMENARI?
- 3.- NOLA DAKUSAZU GASTEIZKO AZKEN URTEETAKO EUSKARAREN BILAKAERA? EUSKARAZ BIZI AL DAITEKE?

GEU aldizkaria eta elkarteak 15 urte betetzera doaz. Nerabegarora heldu badira ere, jai zireneko asmo berarekin jarraitzen dute aurrera: euskara zabaldu, bere erabilpena sustatu, bertako gaiak euskaraz jorratu... Honakoan kalera irten gara jendeak bai GEUren jardueraren bai Gasteizen euskarak bizi duen egoeraren inguruan duen iritzia jasotzeko asmoz.

t./a. ainhoa arriaga & naroa cuesta

PABLO SANTORUM, BANATZAILEA

- 1.- Ez ditut ezagutzen.
- 2.- Euskara bultzatzeko egiten diren ekimen guztiak ondo iruditzen zaizkit. Hala ere, nik ez dakit euskaraz hitz egiten.
- 3.- Jendeak euskarari ematen zaion trataera txarra dela esaten badu, egia izango da, ezta? Hala ere, kalean gero eta gehiago entzuten da.



AIKO GAZTELUMENDI, IRAKASLEA

- 1.- Bai, Gasteizera etorri nintzenetik.
- 2.- Euskara erabiltzen da hemengo gaiak jorrazteko eta hori gertatusuna adierazten du. Oso ondo iruditzen zait.
- 3.- Egoera hobera doala esango nuke, gehienbat gazteen artean. Ni euskaraz bizi naiz Gasteizen, dena dela, zure eremua bilatu behar duzu.



ANE BEDAIO, EUSKALTEGIKO IRAKASLEA

- 1.- Geu aldizkaria eta elkarteak ezagutzen ditut. Elkarteak Parral tabernan hilero antolatzen dituen ikuskizunetara joaten naiz.
- 2.- Oso ondo. Gasteizen horrelako ekimenak beharrezkoak dira, bertako jendearentzat giro euskalduna sortzeko aukera ona delako.
- 3.- Gurasoak saiatzen dira seme-alabekin behintzat euskaraz egiten. Gasteizen euskaraz bizi daiteke, baina jakin behar duzu non egon eta zeinekin elkartu.

ANIA MARTINEZ DE MIGUEL, DENDARIA



- 1.- Bai, baina ez dut gogoratzen noiztik.
- 2.- Oso ondo iruditzen zait burutzen duen lana, euskara bultzatzeko ekimen gehiago egon beharko lirateke.
- 3.- Gasteizen oraindik euskara gutxi hitz egiten da. Gehienbat guraso eta seme-alaben arteko harremanean erabiltzen da, baina guraso horiek euren lagunekin gaztelaraz egin ohi dute. Kutxi kalean eta gazteen artean behintzat posible da euskaraz bizitzea.

IGOR ALDALUR, INGURUMEN TEKNIKARIA

- 1.- Ez, egia esan orain dela gutxi bizi naiz Gasteizen.
- 2.- Euskara bultzatzea helburu duen edozein ekimen ongi dagoela iruditzen zait.
- 3.- Ni Eibartik nator, eta han ere ez da oso ona, baina hemen ere oraindik lan asko egiteko dagoela uste dut. Gasteizen euskaraz bizitzea zaila dela esango nuke. Esate baterako, gizarte etxeetan harrerako langile batzuek ez dakite euskaraz.



ION ARANBURU, IRAKASLEA

- 1.- Gasteizera etorri nintzenetik ezagutzen dut aldizkaria, harpideduna naiz.
- 2.- Azken urteetako ibilbidea ezagutzen dut, eta oso ona dela esango nuke. Gasteizen euskara bultzatzeko horrelako aldizkari bat behar da.
- 3.- Momentu batzuetan aurrerapausoak eman direla iruditzen zait, eta beste batzuetan kontrako bidean goazela esango nuke. Ingurune berezi batzuetan izan ezik, ezin da euskaraz bizi.



HARKAITZ DELGADO, IRAKASLEA

- 1.- Bai aspalditik. Garai batean denda bat eduki genuen, bazkide izan ginen eta propaganda ere sartu genuen.
- 2.- Arabarako eta Gasteizerako erreferente bihurtu da euskaraz egiten den aldizkari bakarra delako.
- 3.- Hobera doa, baina ez emozionatzeko moduan. Gure ghettoan, gure munduan euskaraz bizi daiteke eta hori zabaldu egin behar dugu. Orain gutxi batzuk bizi gaitzke euskaraz eta hemendik urte gutxitara espero dezagun guztiok aukera hori izatea.




MAITANE CUESTA, BATXILERGOKO IKASLEA

- 1.- Orain dela bi hilabete edo, aldizkaria liburutegian ikustean.
- 2.- Ondo iruditzen zait. Gasteizko jendearen iritzia ezagutzea oso garrantzitsua dela uste dut eta gainera euskararen aldeko edozein ekimenen alde nago.



- 3.- Hobera doa, baina jendeak bere aldetik gehiago jarri beharko luke. Gainera oraingo gazteek gehienbat gazteleraz ikasten dute, baina beno, espero dezagun urte batzuen buruan egoera aldatzea. Bilbon edo Donostian euskaraz bizitzea errazagoa dela uste dut.

OLABIDE IKASTOLA



**Urte askoan,
GEU!**

OLABIDE IKASTOLA



maite lekue

15 URTE EUSKARAREN BIDEAN

Hamabost urte iragan dira Geu elkarte eta Geu aldizkaria euskararen unibertsoaren orbitan hasi zirenetik. Hamabost urte Gasteiz eta Araban euskal hiztunen artean komunikazioa bermatzen, harremanak sortzen eta mundua euskaraz ulertzeko talaia izaten saiatu da Geu.

Urte andana hauetan Euskal Herriaren historian sarri suertatu den bezala, bide markaltsuak ibili behar izan dira komunikazio tresna sendo eta oparo bat sortzeko. Gasteizen eta Araban euskararen normalizazio prozesu horretan euskal gizarteak euskarazko komunikabideen beharra behin baino gehiagotan aldarrikatu eta babestu du. Horrexegatik euskararen kontrako erasoen gainean emandako erantzunek euskararen garapen eta hedatze lanetan berebiziko funtzioa izan dute eta Geu aldizkaria eta Geu elkarteak ere ildo berean lan egin dute beren sorreratik.

Horrelaxe heldu gara gaur egun dugun aldizkari eta elkarte mamitzera. Hilabetero-hilabetero aldizkariaren argitalpen berria, urteen igaroan diseinu ezberdinak garai berriei egokituak, lan talde berriak, banaketa bide zabalagoak, egoera berriei erantzuten dioten erantzun espezifikok eta harpidedun berrien gerturatzea. Etengabeko ahalegin hauek gizarteak eskatzen duen komunikazio proiektuari behar bezala erantzuteko euskararen bidean egindako urratsak dira. Baina GEU ez da paperean izkiriatzen diren hitzekin gauzatzen den proiektua bakarrik. Euskara egunerokotasunean erabiltzeko konpromiso ziurra daukagu, beraz euskara plazara! Eta horrexegatik, euskararentzako esparruak gure kaleetan sortzera, kultura suspertzera eta Euskal Herriko errealitateari so eginez komunikazio proiektu zintzo bat sustatzeko emango ditugu gure indar guztiak!

Hamabost urte bete ditugun honetan zorionekoak gara komunikabide xumea izanik euskararen unibertsoan izar bat piztu dugulako eta distiran jarraitzeko gure bazkide eta herritar guztien berotasuna behar dugulako. Hator euskararen kosmosera eta kaleak euskaraz blaitu, Euskal Herriak euskararik gabe jai duelako!



GEUREKIN
EUSKALDUNTASUNEAN LAGUN

ZORIONAK
ETA URTE ASKOTARAKO!

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33
Gasteiz


SUNMUM **HEAPAINDEGIA**



ANGULEMA, 9 GASTEIZ
945 287 760

MAKALA

Zarauzko hondartzatik Gasteizko barrualderaino datorren euskal elektronika



Akaso ama alemana duelako aukeratu zuen Mikel Unzurrunzaga Schmitz-ek (Zarautz, 1970) dj bezala bere lehen urratsak Berlinen ematea. Europan elektronikaren garapena gauzatzen ari zen 90. hamarkadan; Makala goitizeneko zarautzarrak bertako berrikuntzez jantzi eta funk, soul, jazz, reggae eta elektronikaren arteko uztarketa euskalerriratu zuen. Orduetik emankorra izan da bere ibilbide profesionala, non 'Hondartzan' lana (2005) eta bakarkako azken lanaz gain ('Boom Shaka Laka', 2006), zenbait musikariren bildumetan ere parte hartu duen. Ekoizle, baxujole, abeslari eta antolatzaile, Makalaren lan oparoa ezagutzen ez duenak **Gasteizen GEU aldizkari eta elkartearen 15. urteurreneko jaialdi-galan aditzeko aukera izango du maiatzaren 11n.**

t. josune velez de mendizabal

Musika elektronikoaren munduan murgiltzera Berlineraino joan zinen zure hastapenetan. Zergatik aukeratu zenuen Alemania?

1995. urtean Berlinera joan nintzen. Ama alemana dut eta arreba han bizi zen. Sei urte lehenago banintzen dj-a, baina ez oso modu serioan. Tabernetan eta abar jartzen nuen musika. Horiek nolabait nire ikastaroak izan ziren. Esan bezala, 95. urtean, Makala izendapenarekin hasi nintzen mugitzen. Berlinen elektronika inguruan berrikuntzak gertatzen ari ziren eta halako hiriburu handian mundu hori ezagutzeko, baita informazioa eskuratzeko ere, aukera handiagoa zegoen hemen baino. Han aurkeztu nuen lehendabiziz niri burua Makala gisa.

txikitatik nire bi pasioak musika eta surfa izan dira

Zer dela eta aukeratu zenuen Makala izen profesionaltzat?

Makala nire izaeragatik, lasaia edo... ez dakit, hitzak berez esanahi ugari du euskaraz... fonetikoki ere atsegin zitzaidan. Bestetik, jokoagatik ere bai, mkl horrekin Mikel ere ateratzen delako... Izen exotikoa iruditu zitzaidan (barre egiten du).

Kasuan kasu Dj kontzeptua gero eta zabalagoa da zereginetan. Zure lanbidea musika jartzeaz haratago baitoa. Ekoizle, musikari, musika-jartzaile eta antolatzaile ere bazara. Nola suertatzen da hau dena?

Alemaniko bidaia eta gero beste ikuspuntu batetik hasi nintzen lan egiten. Antolatzaile lanari ekin nion hain justu ere. Donostiako Sirope elkartearen ezagutu nuen eta bertan aritzen zen Javi Pez

jauna. Ordutik aurrera hilabeteetan behin edo bitan pintxatzen dut musika aretoetan. Carles Closa -Txarly Brown izenez ezaguna- ere ezagutu genuen, eta hiruror artean Novophonic diskoetxea hartzea erabaki genuen. Novophonic-ekin proiektu berriak egin genituen, hala nola, Camping Gaz izeneko diskoa non baxua jotzen nuen. Honek Europa aldera zabaldu zizkidan ateak... Ostean, 2003an, diskoetxea desagertu zen eta nire Zarauzko estudioan zentratu nintzen, Hondartzan nire bakarkakoarekin (2005).

'Hondartza' diskoa aipatu duzula, azalak itsasoa eta surfa dakartza, baita estiloak ere. Zure bizimodua al da zure musikan jasotzen dena?

Agian bai... Txikitatik nire bi pasioak musika eta surfa izan dira. Zarautzen jaioa naiz ni, eta txikitatik hondarra eta gesala izan ditut nire gorputzean... Bizimoduak zerikusia du, noski. Bestetik, eta musikari dagokionez, nire estiloa nahiko lasaia dela esan daiteke, hemen Euskal Herrian hain ohikoak ez diren musika esparruak jorratzen saiatzen naiz, musika alai eta dantzagarriarekin.

Urteen poderioz, dj Makala, Makala Sound System eta Makala Banda egista-moak sortu dituzu. Zertan datza bakoitza?

Dj Makala, ni neu naiz besteen kantuak jartzen. Makala Sound System erdiko formatua da: abeslari bat, efektuak eta teklatuarekin aritzen den bigarren musikari bat eta ni neu. Hemen jartzen dugun musika, erdia guk egindakoa da eta beste erdia beste musikari batzuen da. Azkenik, Makala Banda formatu zabala dago: baxujolea, teklatu-jolea, perkusio-jolea, haizejolea (zenbaitetan tronboia eta beste batzuetan saxofoia) eta ni neu sampler eta ahotsarekin. Makala Banda oso egitura malgu da, izan ere, musikari hauek guztiak bestelako proiektu musikaletan dabilta. Hortaz, Bandarekin lekuaren arabera kartara egiten dugun saioa da.



bakarkako lanak:

>makala selects boom shaka laka

(2006/fukel/malandros/eitb) william s. fiseher, jimmy bidaurreta & mary soul white, ortop-honk, thc, wagon cookin, grog, elkano browning cream, santi ibarretxe, 12 tribu, the groovy cutters, t-saurus, akatz, euridia & makala.

> hondartzan (2005/metak)

> makala plays novophonic (2002/novophonic/so dens/universal)

kolaborazioak:

no borders, no nations, no wars (duplikat records 2003 berlin); basque electronic diaspora vol. 3 (metak, 2003); basque planet (wagram, 2004); kaffeeburger der sampler 1 (duplikat records, 2006); javi pez orquesta sports (hitop, 2004); gailu pil pil sessions v.1 (metak, 2002)...





www.makala.info

Zure musika entzuteko parada, besteak beste, Euskadi Gaztean duzun irratsaiotan dugu. 'Boom Shaka Laka' izeneko saioa da, zure azken bakarkako lanaren izenburu berekoa hain justu ere. Zer gauzatu da lehenago? Ze lotura dute egitasmo bi hauek?

Bi urtetik hona aukera izan dut Euskadi Gaztean, astebururo eta jai egunetan, gaueko 10etatik 11etara nire saioa egiteko. Horretan nire musika edo gustuko doinuak zabaltzen ditut Euskal Herri osora. Hau da, dj bakoitzak bere maleta propioa dauka eta oso maiz eguneratzen du, hortik aukeratzen ditut kantak. Baina nik ez dut

euskal herrian hain ohikoak ez diren musika esparruak jorratzen saiatzen naiz, musika alai eta dantzagarriarekin

irradi-formula deritzona egiten, ez dut hitz egiten, alegia. Gauzak horrela, ni mugitzen naizen soinu horiek eta eraginak egungo elektronikarekin nahastea pentsatu nuen: jazzetik funkyra, souletik reggaera, Kubako doinuak, afroamerikarrak eta abar elektronika kutsuarekin uztartzea. Irratsaioaren aitzakiarekin aproposa iruditu zitzaidan Euskal Herrian dauden artisten proiektuak biltzea. Baina oso zaila zen 70 minutuko iraupena duen disko batean guztiak biltzea eta azkenean 14 aukeratu nituen, agian hain ezaugarriak ez eta era berean berrienak zirenak. Eta horra hor gauzatu den proiektua!

Euskal Herrian aritzeaz gain Europara dj lanetan bidaiatu ohi duzu. Nondik ibiltzen zara eta zer-nolako hartu-emanak daude bertako eta hango musikarien artean?

Berlinen izan nintzen bira bat egiten duela bi aste. Han badira zenbait leku non ezagutzen nauten. Han asteburuetan pintxatzeaz gain astean zehar ere musikaz gozatzeko aukera dago eta apurka-apurka zure lekutxoia egiten duzu. Alemanian oso abegitsuak dira gure lanarekiko, ez ordea Ingalaterran, non momentuz aukerarik ez dudana izan nire musika jartzeko. Dena den, leku bakoitzak bere xarma propioa du. Ni Belgikan, Italian, Frantzian eta Suitzian ibili izan naiz eta hala da.

Dj-aren figura gazte-jendearekin paretzen da. Lanbide honek adin mugarik al du?

Ez, ez gara futbolista bezalakoak 35 urterekin erabat ahaztuta gaudela. Dj-aren lana lehenik eta behin musika jartzearekin harremandu zen eta ostera graffitiak eta break-dance egitearekin ere. Gero eta jende gehiago dago bertatik edaten eta jaten duena, eta hori dj-aren panoramarako oso osasuntsua da. Gazteak eta ez hain gazteak direnak animatzen ditut nik dj izatera. Azken batean dj-ak egin behar duena da bere musika besteen aurrean azaltzea eta adieraztea. Hori baitu bere lana eta artea; melomanoa izan azken finean.

Eta dj-aren musikaz gozatzeko berriz, adinari begiratu behar zaio?

Ezta pentsatu ere! 60 urteko lagunak ditut musika entzutea gustatzen zaiena, baita 20 urteko lagunak ere. Lehen esan dudan bezala musikan ez da kirolean bezala

MAKALA BANDA GASTEIZEN, GORA BASQUE BLACK PARTY!

"Gora basque black party!" eta barre egiten du Makalak. "Horixe da egun erabiltzen dudan leloa adierazteko euskaldunok ere badugula musika beltzarekiko xarma edo kutsua. Lelo erreibindikatio da", aitortu du zarauztarrak. Gasteizen izango da Makala Banda maiatzaren 11n GEU-k Artium-en antolatu duen jaialdian. "Makala Banda formatu erakargarriena da. Gasteizen egon garen guztietan oso ondo pasa dugu eta hau ez da gutxiagorako izango -dio-. Ordubeteko iraupena izango du 'Hondartzan' diskoko kantuez, beste kanta berri batzuez eta euskal musika beltzaren inguruko doinuez ere osaturiko abesti sortako kontzertuak".

MIKEL UNZURRUNZAGA

diskografia zertzeladak

makalak geu aldizkariari aurreratu dionez, 'hondartzan' bere diskoaren bigarren zatian ari da lanean egun dj-a. "2008ko udaberrian argitaratzea gustatuko litzaidake. egun ekoizpen eta gauzatze lanetan nabil. lan handia da", nabarmendu du musikariak.



FRANCISCO JAVIER KANTOIA, 1 · JANARIAK ETA EDARIAK · 01001 · GTZ

KONTZERTUAK DISKO JASOTZAILEAK

EGUNEROKO MENUA

OSTIRALERO DISKO JASOTZAILEAK

ASTERO KONTZERTUAK

EGUNEROKO MENUA

GORA



maite mendiburu

BAIONATIK GASTEIZA

1976an iritsi zen Gasteiza, iparraldetik, neska hau. Euskalduna, euskaldun berritua, bere jatorriaren ahalgez euskara ttikitan ahantzi ondoren, bere duintasunaz jabeturik berriz ikasten aritu zena. Arras atxikia zen orduko bere ama-hizkuntza izan zen horri, eta nahiagoko zukeen, mugaz hegoaldera bizi behar zuenez gero, Gipuzkoan edo inguruan izan balitz, ezen iragarria zioten, modu maltzurrean noski, Vitoria Gaztela bezalatsukoa zela. Alegia, Euskal Herriko mapan betidanik kokatua izan arren, ez zela han euskaldun sentituko, desertura zihoala. Buru makur egin zuen Gasteiza, eta neurri handian egia gertatu zen kontua: non entzun zitekeen, non hitz egin zitekeen euskara hiri horretan? Espero bezala, iparraldeko gazte hark gaztelania laster ikasi zuen, prefosta, baina pronostiko gaiztoen kontra, Gasteiz euskal herri ere bazela sentitu zuen. Askok ongi etorria ematen zioten, familiakoak hartzen diren moduan. Han eta hemen inguruetatik etorritako euskaldun ale batzuk ere kausitu zituen. Ordea, erdal burrunbaren artean, bereziki hunkigarri egin zitzaizkion Aiztogile inguruan totelka aritzen ziren gau eskoletako euskara ikasleen solasak... Zer, Mo? lepa, Mo! Ni ikaxten ari; zu, nondik zara? de iparraldeko?

Irlak ziren eta irlak dira oraino. Baina handixeagoak, gaur. Eta joriagoak. Egun iparraldetik etorritako neska hura ez da hain gazte jadanik eta galdu du Aiztogileko tabernetara joateko irrika hura. Beharrik ere ez, zorionez: etxetik atera eta menturaz, Posta, Badaia, edo Basoa kalean entzun ahal izanen du euskara, nonahi aurkitzen baititu euskaldundu diren ezagunak, euskaraz mintzatzen da zenbait dendatan, euskaraz lan egiten du. Leku publikoetako leihatiletara hurbiltzean "Barka, euskaraz badakizu?" galdetzen duenean, ahal bezain atsegin beti, gero eta maizago baietz erantzuten diote. Hori hala da, aitzina egin du euskarak Gasteizen. Ez aski halere...horregatik Irlen artean bada irletan bat, berezia, berariaz eraiki zena, euskararen presentzia areagotzeko eta euskaldunen komunitatea trinkotzeko: duela 15 urte hasi ziren lanetan eta GEU jarri zioten izena. Hara hurbildu zen noizbait neska hura, mendi taldera, hain zuzen. Hara jo ohi du hilabeteroko mendi txangoa egitera. Adixkide onak egin ditu; mendian eta euskalgintzan lagun, gutunetan firmatu ohi duten bezala.


Euskaldunak ez du bere burua besteengandik baztertu behar, euskalduntasunak ez dio nehor bereizteko aitzakiarik ematen; areago, euskaldunak erakargarri behar luke. Horrela da, baina bere burua zaintzeko eta sendotzeko aukerak behar ditu. Gasteizen, bederen, bai. Elkar ezagutu eta elkar sustatu behar dugu, geure hizkuntzan gozatzeko esparruak antolatu, landu. Zerbait gara, baina zuhurtziaz jokatu behar dugu izan nahi badugu.

Aupa Gasteiz, milesker, eta zorionak GEU-ri.



ENSUEÑOS

Ohe-arropetan azken joerak eta atseden sistema aurreratuenak



Madre Vedruna kalea, 18 - Gasteiz
Tl. 945 133 838 www.laescueladeldescanso.com



TMEOK 20 URTE



KINI ETA SANTI ORUE, TMEO-KO ARDURADUNAK:

“TMEOren arrakastarako giltza irmotasuna izan da”



TMEO umorezko fanzinea, 1987. urtean jaio zen Iruñean, nahiz eta bost urte zituelarik Gasteiz hartu bizileku. Hedegile kalean, Ezten Kultur Elkartearen barnean, lantzen da bihilabetekaria. Bertan, gustura hartu gaituzte Kinik eta Santi Oruek, aldizkariaren historiaren inguruan gurekin solasean aritzeko.



t. ainhoa arriaga & narao cuesta

a. edorta sanz

Lehenik eta behin zorionak, ekainean 20 urte betetzen baitituzue. Zeintzuk izan ziren TMEOren lehen pausoak?

Gasteizen, Bilbon eta Iruñean, komikien inguruko kolektibo desberdinetan lanean geunden hainbat pertsona elkartu ginen. Orduan erabaki genuen, bakoitzak bere aldetik jardun beharrean, denak bildu eta batera aritzea. Lehenengo bost urteetan Iruñean izan genuen egoitza, ostean hona mugitu ginen. Gazteei euren lehen lanak kalera tzeko aukera eman nahi genien, hori izan da orain arte jarraitu dugun bidea. Kontua da, argitaletxeek hainbat muga jartzen dituztela aldizkariak egiteko orduan, eta horregatik, guk gurea sortzea erabaki genuen, azken finean nahi genuen guztia inolako mugarik gabe kaleratzeko.

Umore eskatologikoa erabiltzen duzuela diote askok. Ados zaudete?

Gauza da TMEOtik autoreei ez diegula inolako bide edo mugarik jartzen. Egia ere bada, umorea izan litekeela oinarria baina bakoitzak nahi duena egiten du: politika, gaurkotasuna... Garrantzisuenen lan ona eta indartsua izatea da. Autore batzuek umore eskatologikoa erabili ohi dute, baina esan bezala, beraien esku dago. Eskatologikoa baino-ago, umore garratza bezala definituko genuke guk.

Zertan aldatu da 1987ko TMEO gaur egunekora?

Maiztasunari dagokionean aldaketa nabaria izan da, izan ere, gaur egun bi hilabetero behin ateratzen da eta irakurleekiko konpromisoa seriotasun osoz hartzen dugu. Alde teknikoari erreparatu ere, aldaketa handia egon dela aipatzekoa da. Gasteiza iristean erabiltzen hasi ginen autoedizio sistemek lana aurrezteaz gain, kolaboratzaileen arteko hartu-emana bermatu dute.

profesionaltasun kontua da inspirazioa

antzerkian bezala gertatzen da komikigintzan, beti esaten da krisian dagoela baina bertan jarraitzen dugu

lanak iristen zaizkigu eta kalitatearen arabera argitaratzen ditugu; euskaraz bidaltzen badizkigute, euskaraz

Hauek izan dira aldaketa bakarrak. Atzera begiratu eta konturatzen gara nahiko berdin jarraitzen dugula, argitaratzeko leku batekin eta inolako argitaletxe trabatzailek ez dugula kontuak eskatzen. Azken finean, hori izan da beti gure helburua.

Zein motatako zailtasunekin egin duzue topo urte hauetan guztietan zehar?

Noizbait izan dugu arazo ekonomikorik. Baina denek bezala, ezta? Arazotxo legalak ere aurkitu ditugu bidean, baina ez oso larriak. Jendeak normalean galde-tzen digu ea ez gaituzten inoiz atxilotu. Agian 100.000ko tirada izango bagenu... Baina 5.000koarekin momentuz ez, kar-kar. Behin salaketa bat jarri ziguten Koroa eta Guardia Zibila iraintzea leporatzen zigu-





telarik, baina azkenean ezerezean gelditu zen.

Euskal Herrian hedapen handiena duen komiki aldizkaria da TMEO. Zein da arrakastarako giltza?

Gu oso irmoak izan gara eta agian hori izan liteke arrakastarako bidea, irmotasuna. Egiten duguna lehen egunean bezala gustatzeak ere zerikusia du hone-tan. Hala ere, nahiko inkontzienteki ger-

tatu da dena. Bestalde, gure banaketa prozesua da besteetatik desberdintzen gaituena. Izan ere, tabernaz taberna banatzen dugu aldizkaria eta ez liburu-denda espezializatuetan.

Hogei urte asko dira, nondik ateratzen duzue jarraitzeko etorria?

Etorria? Eguneroko egoeretan mila gertakizun daude kontatzeko, politikan,

gizarte gaietan, gaurkotasuneko gaietan... Uneoro gaude horretan pentsatzen, buruari bueltak ematen, tira on bat egiteko. Profesionaltasun kontua da inspirazioa. Azkenean, mundu guztiak pentsatzen duena esatean datza, baina guk landuta ematen diegu, *maskatuta*.

Nola definitzen duzue TMEO?

Umorezko fanzine gisa. Beste aldizkari-

tmeo beste aldizkarietatik haratago doan umorezko fanzinea da

eskatologikoa bainoago, umore garratza bezala definituko genuke guk.

gazteei euren lehen lanak kale-ratzeko aukera eman nahi genien, hori izan da orain arte jarraitu dugun bidea



tatik pixkat haratago doana. Mila arrazoigatik: tirada txikikoa delako, ez gaudelako argitaletxe baten menpe,... errealitatera hurbiltzen den aldizkaria da, kalekoa.

Eta zuen publikoa nolakoa da?

Oso anitza da, adin guztietako jendeak irakurtzen du. Gure irakurleek jenio bizia alboratzea bilatzen dute, barre apurtxo bat egitea,... Hamasei urteko gazte batek haustea, urratzea bila dezake, komikien zale amorratu batek bilatzen duenarekin oso desberdina izan daitekeelarik. Batzuek ere, ikasteko irakurtzen dute!! Nahiko didaktikoa ere izan baitaiteke TMEO.

Emakume bakarra dago zuen lan taldean...

Emakumeak ez dira sartzen kaka bat diren lanetan, kar-kar. Horretaz gain, marrazkilarien munduan gizezkoak emakumezkoak baino gehiago dira. Umorearekin lan egiten duten askorik ere ez dago. Zergatik izango den hau? Ba ez dakigu. Hala ere, ez dugu uste garunetan desberdintasunik egongo denik!!, kar-kar. Orain serio, guk ez dugu desberdintasunik egiten, lana ona den begiratzen dugu, istorio eta marrazki onak diren edo ez. Horren arabera argitaratzen ditugu, besterik gabe.

93. zenbakia da azkena. Interneten saltsetzen ale bat kaleratu ez zela ikusi dugu. Zer gertatu zen 11. alearekin ?

Mundu guztiak galdetzen digun galdera. Norbaitek gehiegi erre omen zuen... Ez, benetan, azalpen arrazionalak dio zenbatzerakoan erratu egin ginela. Hamargarren aletik hamabigarrenera pasatu ginen nahi gabe. Jende askok proposatu digu, bai TMEO barrutik bai eta irakurleen aldetik ere, hamaikagarren zenbaki madarikatua orain egitea.

Gasteiz da, estatu mailan biztanle kopuruarekiko komikilari gehien duen hiria. Zertan uste duzue eragiten diola honek TMEOri?

Orain dela gutxi ezagutu genituen datu hauek eta zer esan ez genekiela gelditu ginen. Nukleoa sortu da hemen, jende asko gara mundu honetan lan egiten dugunok eta azkenean elkarlanean aritzen gara askotan.

Etorkizunari begira euskararentzako lekua ikusten duzue TMEOn?

Jendeak normalean ez du lan askorik euskaraz bidaltzen. Hala ere, noizbait lanen bat euskaraz atera da, baina gauza da TMEO Euskal Herritik kanpo ere asko saltzen dela. Esate baterako, %50 euskaraz izango balitz, gure publikoa euskalduna izatera behartuko genuke. Baina, lehen esan dizuegun bezala, lanak iristen zaizkigu eta kalitatearen arabera argitaratzen ditugu; euskaraz bidaltzen badizkigute, euskaraz.

Laster TMEOren ehungarren zenbakia kaleratuko da. Beldurrik?


Gutako batzuek besteok baino gehiago. Beldurra batez ere, zerbait berezia egin beharko dugulako. Seguru asko ale berezia izango da hau, oraindik ez dakigu nolakoa, baina berezia.

Nola ikusten duzue komikia etorkizunean?

Antzerkian bezala gertatzen da komikigintzan, beti esaten da krisian dagoela baina bertan jarraitzen dugu. Helbururik nagusia ghettotik irteera da. Horretarako, argitaletxeek arrisku gehiago hartu behar dute beren gain. Saialdiak egon badaude, desberdintasuna bilatzen dutenek arrakasta lortzeko, baina azken finean saialdiak baino ez dira



ARTEPAN



*aniztasuna, kalitatea eta zerbitzua
norbanako eta enpresen eskura*



kukuxumusu kutxa



jesus guridi, 2 · tlf. 945 27 88 88 – boulevard m.g. · tlf. 945 06 88 88 – vitoria-gasteiz – www.artepan.com



ARAMAIO



ARRAZUA-UBARRUNDIA



LEGUTIANO




URKABUSTAIZ



ZIGOITIA



ZUIA



ZUIAko KOADRILA ERE EUSKARA BULTZATUZ
ZORIONAK GEU!



Cuadrilla de Zuia-ko Koadrila

www.cuadrillazuia.com

t. saioa fdz de arangiz
a. edorta sanz

2006ko udan jaio ziren 'Jakín eta Jolas'. Jakín Mikel Hernandez ipuin kontalaria dugu. Jolas, berriz, David Gutierrez pailazoa. Bikote gasteiztarrek euskarazko ipuin kontaketa eskaintzen die 4 eta 10 urte bitarteko umeei. Baina 'Jakín eta Jolas'-ek ez dute ohiko narrazioa egiten. "Oinarria ipuin kontaketa da, baina narraitutakoa antzetzten dugu", azaltzen du Mikelek. Literatura eta antzerkiaren nahastura hau haurrentzako formula "erakargarria" suertatzen da, euren hitzetan, "antzerkiak asko aberasten baitu narrazioa".

Mikel eta David gazteen proiektu hau errealitate bilakatzeko ezinbestekoa izan zen Ama-Lur enpresaren laguntza. "Batez ere, Arabako Ama-Lur bulegoaren arduradun Asier Alvarez de Arkaia izan da proiektu honen bultzatzaile nagusia. Gudan jarri zuen bere konfiantza hasieratik", argitzen dute. Izan ere, kultura arloan ekintzak antolatzen dituen enpresa hau da, hain zuzen, Jakín eta Jolas-en managerra, hots, euren antzezpenak kudeatzen dituena.

Igaro den urrian euren lehenengo lana 'Ipuinekin jolasean' antzetzten hasi ziren, non 'Txanogorritxu' eta 'Sorgina Pirulina' ipuinak eta Indiako elezhar bat kontatu eta antzetzten dituzten. Geroztik, asko izan dira Jakín eta Jolas bikoteak bisitatu dituen lekuak. Gasteiz ez ezik, Arabako eta Bizkaiko hainbat herritan barrena ere aurkeztu dute saioa, Gesaltza edo Audio, kasu. Hemendik aurrera, Euskal Herriko bestelako eskualdeetara ere mugitzea aurreikusten du bikoteak. Jakínek, bere aldetik, ipuin kontaketa hutsa egiteari ere ekingo dio eta uda ostean, ikuskitzun berria prestatzen hasiko dira Jakín eta Jolas.

Bien bitartean, bakoitzak bere eguneko eginbarrei ere aurre egin behar die. David elektronikoa da. Mikel, aldiz, Ingeles Filologiako ikaslea, eta literaturan doktoretza gauzatzea du buruan.

Etorkizunari begira, "haxe gure ogibide bihurtzea gustatuko litzaiguke, hau da, antzerki talde handia osatzea eta honetaz bizi ahal izatea", dio Davidek.



JAKÍN ETA JOLAS

UMOREA ETA LITERATURA BAT EGINIK

Mikel Hernandez eta David Gutierrez 'Jakín eta Jolas' dira, haurrentzako euskarazko antzezpenak eskaintzen dituen bikotea, alegia. Ipuin kontakizuna eta interpretazioa bateratuz, literatura eta umorez beteriko saioak gauzatzea lortu dute bi gazte gasteiztarrek.



“Bat-batekotasunaren magia ezinbestekoa zaigu”



Nola bururatu zitzaizuen Jakin eta Jolas egitasmoa sortzea?

Mikel: Egian esan, guztia gau batean sortu zen. Davidek eta biok batera egiten genuen lan beste enpresa batean eta afari bat egin genuen. Ni ipuin kontalaria eta David pailazoa izaki, ulertu genuen biok batera zeozer egin behar genuela. Hortaz, gure ezaugarri zehatzak kontuan hartuz, bion fusioa egitea polita izango litzatekeela otu zitzaigun.

David: Horregatik deitzen gara Jakin eta Jolas. Ni Jolas naiz, pailazoa, Mikel, aldiz, Jakin, ipuin kontalaria. Erabat espontaneoa izan zen!



kontakizunen alde didaktikoa eta ludikoa jorratzen ditugu.

Berehala aztoratzen dira, eta hortaz, oso publiko exigentea da. Guk sumatzen dugu gure antzeppenarekin oso ondo pasatzen dutela, barre piloa egiten dute, bai eta esaten dugun guztia ulertu ere. Izan ere, gure ikuskizunak 18 urtetik gorakoei ere zuzenduta egon daitezke, haurrekin datozen guraso eta helduentzako umorea ere sartzen baitugu. Umore “sanoa” erabiltzen dugu beti, denek ulertzeko modukoa.

Zein da ‘Ipuinekin jolasean’ saioaren xedea?

D.: Bi dira helburuak; batetik, umorea lantzea, hau da, umeez ondo pasatzea eta bestetik, ikastea. Horregatik, kontaktzen ditugun ipuinak euren irakaspenak dituzte. Aldi berean, umeak dibertitzea eta zeozer ikastea nahi dugu.

M.: Ikuskizunaren izenak berak esaten du. Umeek ipuinak zerbait aspergarriekin lotu ohi dituzte sarri, baina jolasean baldin bada, egoera aldatzen da. Hortaz,

Nolakoa da haurren erantzuna? Publiko erraza al da?

M.: Pentsa liteke umeen aurrean lan egitea erraza dela, dirudienez, haiek beti helduek baino gutxiago eskatzen dutelako eta edozer gauzarekin konforme dudelako. Baina ez da horrela. Haurrak ez dira tontoak eta ikusten dutena gustatu behar zaie eta beraiei zuzenduta egon behar da.

D.: Helduei saioa gustatzen ez bazaie disimulatzen dute, umeez, aldiz, ez.

Inprobisaziorako lekurik al dago zuen ikuskizunean?

M.: Bai, noski. Nire kasuan, nire paperak inprobisaziorako leku gutxi uzten dit, azken finean, nirea narrazioa egitea da. Baina beti zeozer bat-batean egin behar dugu, beharrezkoa baita. Inprobisazioaren magia ez baldin badago, saioa erreko litzateke eta gu geu ere! Eskertzekoa da, beraz.

D.: Horrez gain, oraindik ez dugu antzeppen bat ere berdin-berdin egin! Saioak egin ditugun heinean, gidoian aldaketak egin ditugu, gauzak laburtuz, kenduz edo gehituz. Horrela, gidoia landuago dago.



Araba-Nafarroa p.k. 722 - 01080 Gasteiz
Tl. 945 24 38 28 araba@ama-lur.com

www.ama-lur.com



KULTURA KOORDINAKUNDEA

Bizkaia
p.k. 48 - 48920 Portugalete
Tl. 94 486 24 44
bizkaia@ama-lur.com

Gipuzkoa
p.k. 1166 - 20080 Donostia
Tl. 943 47 50 30
gipuzkoa@ama-lur.com

jolas-tresnak
haur emanaldiak
herri kirolak
soinuztapena eta argiztapena
eszenatokiak eta karpak
karaokea eta diskoteka
orkestrak
erromeriak
fanfarreak
jaialdiak
turismo-trenak
bideo proiektoreak

esklusiba





Garazi, 10 urteko neska alaia eta jatorra dugu. Gasteizen bizi da eta bere zaletasunak igeri egitea eta irakurtzea dira. Aiton-amonak, Bizkaiko herri batean, Aulestin, bizi dira eta horregatik askotan joan ohi dira bertara asteburua familiarean pasatzera. Hiru urteko ahizpa txiki bat ere badu Garazik. Askok maite duela eta oso ondo moldatzen direla azaldu digun arren, lone oso neskatila bihurria dela ere aitortu digu.

GARAZI ZALDUNBIDE

“Herri batean biziko nintzateke animaliak eduki ahal izateko”

t. naroa cuesta & ainhoa arriaga

a. edorta sanz

Nola deskribatzen duzu zure burua? Lotsatia naiz ezagutzen ez dudan jendearekin.

Zure gorputzeko atalik politena? Ez dakit, ilea agian.

Gustatzen zaizun janari bat? Arroza.

Gutxien gustatzen zaizuna? Barazkiak ez zaizkit gustatzen.

Kolore bat? Laranja.

Kirolik? Igeriketa.

Gehien eta gutxien gustatzen zaizuna? Gehiena, lagunekin ondo pasatzen dudala eta txarrena, 30 minutu segituan igeri egitea. Bular-igeriketa egitea da gehien gustatzen zaidana.

Telebista saio bat? Simpson-ak.

Liburu bat? Kika. Liburu bilduma da, sorgina den neska bati gertatzen zaizkionak kontatzen ditu.

Zu ere, sorgintxo izaten zara batzuetan? Beno... bai.

Nora joan ohi zara oporretan? Lagunekin, udako oporretan Zuatara joatekotan gaude udalekuean. Behin bakarrik egonda nago, asteburu pasa.

Zer dauka Gasteizek Aulestik ez duena? Zinema adibidez (barre artean).

Zein izan da zinemari ikusi duzun azken filma? Eragon, nahiko gustatu zitzaidan gainera.

Zer da eskolara zoazenean gehien gustatzen zaizuna? Lagunekin egotea.

Zure irakasgaririk gogokoena? Soinketa, jolasak egiten ditugulako, baita korrika ere. **Nagusitan zertan lan egin nahi duzun pentsatu duzu?** Bai, al baitaria izatea gustatuko litzaidake.

Animaliak gustuko dituzu orduan? Bai asko. Txakurra da nire animaliarik gogokoena.

Al baitari izateko asko ikasi behar da... Bai, badakit.

Gustatzen zaizu ikastea? Beno... kar-kar.

Non nahiago duzu bizitzea, herri batean edo hiri batean? Herri batean, animaliak izan ahal izateko batez ere. Txakurrak eta katuak izango nituzke.

Gurasoek errieta egiten dizutenean zergatik izaten da? Ba ez dakit. Ama eta biok adibidez oso burugorrrak garenez, batzuetan haserretzen gara.

Zer nahiko zenuke oparitzea? Txakur bat, baina ez didate edukitzen uzten. Ez omen litzateke ondo biziko etxean.

Asteburuetarako plana? Batzuetan Aulestira joaten gara. Gasteizen geratzen garenean, nire lehengusinarekin, Estirekin, gelditzen naiz edo bestela, nire lagun batekin. Batzuetan, zinera joaten gara.

Lagunen artean ere, euskaraz aritzen zarete? Batzuetan bai. Bakarrik gaudenean ez beti, kar-kar.

Berdin moldatzen zara euskaraz edo gaztelera? Bai, beno, erdaraz gehiago trahatzen naiz.

Zure ustez, Gasteizen euskaraz bizi gaitzete? Ez dakit ■



ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

Euskadik behar zaitu 


• Zurezko teilatuak
• Berrikuntzak
Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goiaín Industrialdea
TI/Fxa: 945 465 921
TI. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)

ZURE HARATEGIAK

XABIER AIZPEOLEA harategia
Florida Azoka 2 eta 3
TI. 945 13 24 48
Abastos Azoka 2 eta 3
TI. 945 26 78 97
Jose Luis GARMENDIA
Harategia-urdaitegia
Andaluzia kalea 13
TI. 945 28 79 42
GASTEIZ
gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

Obren egite eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Fxa: 945 14 02 17 • Mobile: 639 81 51 30

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOLA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ


ERROTA HORTZ KLINIKA
Julian de Apraiz kalea, 1 TI. 945 213 390 - Faxa: 945 213 390
01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net


Errege atea, 9 • GASTEIZ
TI: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • TI: 945 13 27 20

Confeciones Pinedo Jantziak
San Antonio, 11 • TI. 945 23 39 90
H. Fournier, 15 • TI. 945 15 53 39

HEGOALDE
Euskalategia
Matrikula zaitex !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

IRYSTA TABERNA
poteo eta pintxoak Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Udaberria euskalategia
• Euskalategi Homologatua
- Helduentzat • Musika eskola
- Ume eta gaztetxoentzat • Dantza
Uruguai kalea, 9 - TI: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - TI: 945 22 34 33

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia
Gasteizko haragitegirik zaharrena
Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

NEFF

KALITATEZKO EUROPAR ZINEMA GASTEIZEN

Maiatzaren 2tik 12ra bitartean, NEFF jaialdiak berriro ere zazpigarren artearen gune bilakatuko du Gasteiz. Hirugarren edizio honetan, ohiko europar filmen lehiaketa ofiziala izango da ardatza. Horrez gain, zinemagintza poloniarra, haurrentzako euskarazko pelikulak eta musika ere protagonista bilakatuko dira zinemaren ospakizun honetan.

t. saioa fdz de arangiz
a. edorta sanz & neff


2006 urtean europar errealizadore berriek ekoiztutako lanen berri ematea da maiatzean egingo den Gasteizko NEFF jaialdiaren xedea. Gainera, Europar Zinema Berriaren Jaialdi honek bestelako altxorak ere eskainiko dizkio ikusleari. Lehiaketa ofizialean parte hartuko duten film luze eta laburrak ezezik, zinema europarrak gozatzeko aukera anitz ere izango dira. Aurreko edizioetan Alemania eta Belgika herrialde gonbidatuak izan baziren, aurten Poloniaren txanda izango da. Horrela, Ekialdeko herrialdearen zinemagintza protagonista bilakatuko da. Baina ez hori bakarrik. Haurrentzako euskarazko filmak, zinema latindarra, bitxiak... Hauxe da NEFF jaialdiko mapa:



ATAL OFIZIALA


FILM LUZEEN LEHIAKETA

Europa mailan gero eta ezagunagoa den NEFF jaialdiak 73 film luze jaso ditu lehiaketan parte hartzeko, baina soilik 12 filmek lortu dute lehiaketa ofizialean egotea. Lan hauen errealizadoreak gehienez hiru film luze ekoiztu dituzten zuzendariak dira eta lehen aldiz erakutsiko dute euren azken lana Araban. Europar film luze onena, Europar errealizadore onena, Europar antzezle onena, Giza Eskubideen Saria eta Publikoaren Saria daude jokoan. Proiekzioak, maiatzaren 5etik 10era Florida aretoetan.




BARAKAT!

Frantzia, 2006. Kolorea. 90 min.
Zuzendaria: DJAMILA SAHRAOUI
Aljerian nonbait, laurogeita hamargarren hamarkadan. Amel larrialdietako medikua da ospitale batean. Gau batean desagertu den bere senarraren bila abiatu behar da.




BASTA UN NIENTE

Italia, 2006. Kolorea. 85 min.
Zuzendaria: IVAN POLIDORO
Napoliko golkoko herrixka batean egun guztiak berdinak dira Pepperezentzat, baita bere lagunak diren Ivo eta Rodarioentzat ere. Halako batean dena hankaz gora jartzen da: Paolo Fierro, herriko mafioso hil egin da eta hainbat gertakariren ondorioz, hiru protagonistak lapur sinesgaitzak bihurtzen dira.



FRIS LEVEGÖ (FRESH AIR)

Hungaria, 2006. Kolorea. 109 min.
Zuzendaria: ÁGNES KOCSIS
Viola emakume ederra da oraindik. Angela lotsarazi egiten du amak. Bien artean komunikazioa ia ezinezkoa bihurtu da. Gustukoaren duten telesaila ikusteko bakarrik egoten dira elkarrekin, ez dute atal bat ere galtzen. Izan ere, Angelak beste bitzta bat nahi du. Haize berriak nahi ditu.



COMME DES VOLEURS (À L'EST)

Suitza, 2006. Kolorea. 112 min.
Zuzendaria: LIONEL BAIER
Lionelek, ustekabeen, familia Poloniakoa duela jakin berri du. Anai-arrebek Europa ekialdera bidaiatzen dute eta Varsoviarako bidaia aspaldi espero zuten abentura izango da. Filmaren zuzendariak Gasteizko NEFF 2005 Jaialdian Europako zuzendari onenaren saria jaso zuen 'Garçon Stupide' (2004) obrarekin.

www.commedesvoleurs.com



HAPPY END


Alemania, 2005. Kolorea. 100 min.
Zuzendaria: DANIEL STIEGLITZ
Idazle gazte bat etxe zahar batera aldatzen da, eleberririk idazten hasteko asmoarekin eta inork gogaituko ez duelakoan. Bere bikote-harremana eta bere ibilbide profesionala kaltetuta daude. Bakarlekuan, bizilagun berriek eta etxeako maizterrak sekretu izugarri bat dutela jakingo du.



GRAVE DECISIONS

Alemania, 2006. Kolorea. 100 min.
Zuzendaria: MARCUS H. ROSEN-MÜLLER

Sebastian, 11 urteko mutikoa, 0 urte zituenean ama hil zuela sine-tsita dago; Sebastian jaio zen egun berean hil zen! Aita mutikoa lasaitzen saiatzen den arren, Sebastian izututa dago, infernura joango dela uste baitu, edo, behintzat, purgatorioan denbora asko pasako duela. Hori guztia gainditzeko modu bakarra hilezkortasuna da.



UN JOUR D'ÉTÉ

Frantzia, 2005. Kolorea. 90 min.
Zuzendaria: FRANCK GUÉRIN

Herri txiki arrunt batean bizi diren Michael, Sébastien eta Francisek (alkatearen semeak) herriko futbol taldean jokatzen dute. Partidu batean, gazteetako bat hil egiten da istripuz, eta heriotza horrek herriko egunerokotasuna azpikoz gora jarriko du. Une horretatik aurrera, atsekabea eta oroitzapenak lagun, berriz ere bizitzen ikasten saiatuko dira.

**MIFY MOEGO DETSTVA
(MYTHS OF MY CHILDHOOD)**

Errusia, 2005. Kolorea. 105 min.
Zuzendaria: YURI FETING
Hirurogeigarren hamarkada. Errusian kokatzen den Nedvigovka, itsaso ondoan dagoen bainuetxe-herria da. Herriko gazte eta helduen istorioak plazaratzen dira film honetan. Argiz eta musikaz jositako erretratu koral eta bitalista honetan agertzen dira mitoak, oroitzapenak, nostalgia, komunismoaren aurreko jarrera eta antzinako erlijio-sinesmenak ere.



LES PETITES VACANCES

Frantzia, 2006. Kolorea. 90 min.
Zuzendaria: OLIVIER PEYON
Daniélek bi biloba dauzka, neska eta mutila, nerabeak, eta eskolatik jai hartzen dutenean, alabaren senar ohiaren etxera eramaten ditu. Oporraldi hauetan, ordea, aita ez dagoenez, bidaia luzatu egin du, bilobekin denbora gehiago egote aldera. Une atsegin eta dibertigarriak biziko dituzte, baita malenkoniatsuak ere.
www.lespetitesvacances-lefilm.com

MON FRÈRE SE MARIE

Suitza, 2006. Kolorea z/b. 95 min.
Zuzendaria: JEAN-STÉPHANE BRON.

Orain dela 20 urte Suitzako familia batek semetzat hartu zuen Vihn errefuxiatu vietnamdarra ezkontzera doa. Vietnamgo bere ama bisitandator, bere semea hezi duen familia ezagutzeko asmoz. Baina egiazki familia ez dago amak uste bezain elkartua eta zoriontsu bizi direlako papera interpretatu behar izango dute gurasoek eta anai-arrebek.

**SHEVERNATZE,
UN ANGEL CORRUPTO**

Espainia, 2006. Kolorea. 80 min.
Zuzendaria: PABLO PALAZÓN
Jonas Bargeño auto-eskolako irakasle arrunt bat da. Egun batean, Madrildik Avilara atzerako martxan joatea erabakitzen du. Bere asmoa da atzerako martxan sekula egindako bidaia luzeenaren Guinness marka haustea eta, bitartean, dokumental bat egitea. Bidean agure oso berezi bat hartzen du autoan.
Shevernatze filmak Ikusleen Saria irabazi zuen Viña del Marreko Zinema Digitaleko Jaialdian (Txile).
www.shevernatze.com



VALERIE

Alemania, 2006. Kolorea. 85 min.
Zuzendaria: BIRGIT MÖLLER

Gabon aurretik, hain justu, 29 urteko Valerie modelo gaztearen ibilbide arrakastatsuari azkena eman diote, Berlinen. Valeriek logela bat dauka oraindik Hyatt Hotel berezian, baina, etsita eta itxaropenik gabe dago; hala ere, lagunen aurrean larritasuna ezkutatu egiten du. Itxurak egiten bizi da glamourrez betetako jende aberatsaren munduan.

FILM LABURREN LEHIAKETA

Aurten, lehen aldiz, CORTADA lehiaketa ere europar film laburren esku egongo da. Horrela, aurkeztu diren 233 lanetatik, 90 estatutik kanpokoak izan dira. Azkenik, 50 film labur aukeratu dira lehiaketan parte hartzeko. Besteak beste, 6 errealizadore euskaldunen lanak: Jon Garañoren 'Miramar St', Ane Muñozen 'Loturak', Alguis Arlauskasen 'La Barbería', David Gonzalezen 'El relevo', Alberto Gonzalezen 'Cirugía' eta Jose A. Perezen 'Hoja de ruta'. Europar Film labur onena, Espainiar Film labur onena eta Euskal Film labur onenaren sariak daude lehian. Emanaldiak, Guridi eta Florida aretoetan izango dira.



FERNANDO LOPEZ CASTILLO, NEFF-EKO ZUZENDARIA:

“FILMEN UZTA BIKAINA IKUSGAI EGONGO DA NEFF-en”

Nolakoa izango da 2007ko NEFF jaialdia?

Aurtengo edizioko filmak, eta batez ere, film luzeak azpimarratuko nituzte, kalitate handikoak baitira. Film laburrak ere nahiko onak dira eta Gasteizen, gainera, jendeak asko maite ditu film laburrak. Ni gainontzeko zinema jaialdietan izan naiz filmak ikusten eta nire aburuz, Gasteiza onenak datoz. Egindako uzta bikaina izan da. Luzeen artean, nire aburuz, filmerik onenak germaniarrak dira. Orokorrean esanda, aurten erakutsiko diren lanak oso onak dira eta parte hartuko duten errealizadore berrien artean badira pare bat edo oso onak direnak. Kalitatea izango da nagusi.

Polonia da aurtengo edizioko herrialde gonbidatua. Zergatik Polonia?

Gure ustez, Europako Ekialdean egin den eta egiten den zinema oso ona da, baita oso ezezaguna ere. Bertako errealizadoreek egindako filmak, Roman Polanskiren ‘La semilla del diablo’, Agnieszka Hollanden ‘Europa, Europa’ edo Krzysztof

Kieslowskiren ‘Azul’, ‘Blanco’ eta ‘Rojo’ filmek, esaterako, sari asko irabazi dituzte, baina oso jende gutxik daki poloniarrek direla. Egiazki, euren filmografia onenatarikoen artean dago eta gasteiztarrei ezagutzera ematea da gure helburua.

Martxoaren 28tik 30era bitartean, New Yorkeko Tribeca Cinemas-en ‘Festival Basque Films & Media Arts’ jaialdia burutu da eta Gasteizko NEFF eta Bilboko Zinebi ere bertan egon dira. Zein izan da bisita honen xedea?

Eusko Jaurlaritzak, Bilboko Udalarekin batera, euskal filmak bertan aurkezteko programazioa aurkeztu zuen. Bi jaialdietako ordezkariak joan ginen, batez ere, kontaktuak egiteko, adibidez, bertako ikus-entzunezko enprekin. Gure asmoa, beraz, hango zinemaldiarekin harremanetan jartzea izan da, bereziki, Tribeca Jaialdiarekin eta Manhattango Zinemaldiarekin. Emaiza ona izan da, fruituak lortu ditugu eta jadanik datorren urtean lankidetzan hasiko gara.

EKINTZA PARALELOAK

Zinea eta musika

Musika genero ezberdinekin harremana duten filmen estreinaldiak egongo dira Abaco aretoetan.

Aipatzekoa da 'Beasty Boys' musika talde ospetsuak egindako ikus-esperimentua; 'Awesome: I fuckin' shot that!' izeneko. Bestetik, 'Favela Rising' dokumental brasildarra proiektutako da, 25 sarien irabazle eta zurrenik, 2006ko dokumental onena.

Abaco Boulevard zinema aretoetan.

Bitxiak

NEFF-ek altxor txikiak gordetzen dizkie ikusleei, bitxiak alegia. Lehiaketaz kanpo, epaimahaikideek zuzendutako edo europar zinemagintzaren maisuen lan berriak aurkezten ditu jaialdiak atal honetan. Esaterako, Robert Guédiguian-en 'Le voyage en Arménie' edo Volker Schlöndorff-en 'Strike'.

Florida zinema aretoetan.

Latindar zikloa

"Latindar" kontzeptuaren esanahi zabala hartzen du film luzeen ziklo honek. Hau da, latinetik eratorritako gainontzeko hizkuntzetan egindako lanak aurkeztuko dira honetan, hala nola, errumaniera, portugesa, katalana, galiziera, eta abar. Programa honek herrialde hauen ohituretan, bizimoduan eta arazoetan murgilduko du ikuslea. Aurten zinemaldi guztietan faboritua den 'El Cielo de Suely' film brasildarra ikusteko aukera egongo da, besteak beste.

Florida zinema aretoetan.

Haurrentzako euskarazko zinema

Haurrek ere euren zinemaz gozatzeko aukera izango duten NEFFen. Gainera, euskara hutsean. Lau izango dira eskainiko zaizkien filmak: 'Karamut!', 'Azur eta Asmar', 'Pepper' eta 'Polleke'. Hauek guztiak Abaco Boulevard zinema aretoetan aurkeztuko zaizkie, goizetan, ikastoletako taldeei.

POLONIA, HERRIALDE GONBIDATUA

• Zinema:

Roman Polanski, Krzysztof Kieslowski eta Andrzej Wajda zinemagileen pelikula enblematikoak ikusgai egongo dira Florida aretoetan maiatzaren 2tik 4ra bitartean.

• Zinema eta bideo sorkuntza maratoia:

Maiatzaren 6an Artium museoan.

• Erakusketa:

Kieslowskiren filmografiaren kartelen erakusketak leku izango du Arabako Artxibategian.

• Musika:

-Andrej Olejniczak: Euskal Herrian bizi den saxofonista poloniarrek jazz kontzertua eskainiko du maiatzaren 4an Artium museoan.

-Camerata Pro-Arte taldearen eskutik, Espainia eta Poloniako musika klasiko kontzertua egongo da Principal Antzokian, maiatzaren 8an.

• Unibertsitateko Zinema Jardunaldiak:

Iraganeko eta egungo zinema poloniarra eztabaidarako gai izango da Arabako Campuseko Ingeniaritza Eskolan. Maiatzaren 7tik 11ra.

NEFF HASIERA ETA AMAIERA

Inaugurazioa: Jaialdiari hasiera emateko maiatzaren 5ean, Antonia San Juan aktorearen esku, NEFF 2007ko inaugurazio ofiziala egingo da Principal antzokian.

Amiera: Maiatzaren 12an NEFF 2007ko sariak banatuko dira Principal Antzokian. Honekin batera, Carlos Nuñez musikariak 'Cinema do mar' azken diskoa aurkeztuko du. Bertan, artista galiziarrek film ezagunen soinu-bandak interpretatuko ditu; propioak 'Mar adentro' legez, eta bestelakoak, 'La Misión' kasu.

NEFF PARTE-HARTZAILEA

Soinu-banda tailerra

Musika eta zinea bateratuko dituen bi eguneko ikastaro honetan irudietan ezartzen den musikan adituak diren irakasleek parte hartuko dute. Musika ikasle, musikari eta ikus-entzunezko langileei dago zuzenduta. Maiatzaren 4tik 6ra bitartean.

Zuzenean parte hartu

Hiritarra jaialdian biziki parte hartzeko xedez, 2007ko NEFF jaialdiak kolaboratzaileak bilatzen ditu, besteak beste, epaimahaikide, itzultzaile, kazetari eta argazkilari lanak burutzeko. (competition@neffestival.com) ■



CEGASA

Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK





Ekipo elektronik berriek energia berria behar dute eskaintzen duten korrante intentsitate altuko premiei erantzuna emango diena.

*Cegasa-k erronka berri honi emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio askotako pila alkalinoen belaunaldi berria, azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.*



CEGASA INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - 01013 GASTEIZ
Bezeroarentzako arreta telef.: 902 32 22 32 www.cegasa.com



Idazleak...

Buru-bihotzez

edu zelaieta

Hamabi urteko Mikeli ez zitzaion beste ezer hoberik bururatu: igerian erakutsiko diot, bai. Igeri egiten ikasita, beti gogoratuko baita nirekin. Horrela, geure arteko lagun-tasuna betikoa izango da.

Ahmedek hamar urte zituen eta, lehen aldiz, Tindufeko errefuxiatuen kanpamendutik kanpoan zen, Gasteizko familia batekin udako oporraldia igarotzen. Erraz eta azkar moldatu zen hemengora. Mikel zuen lagun eta bidaide ia momenturo. Nonbait, desertuan ezagutu ez zituen igerilekuetan egoten zen gusturen Saharako laguna. Azken-aurreko egunean, ordea, bekatu ttiki bat egin zuen: Mikelen etxean ikusia zuen aldizkaria lapurtu zuen bere deserrira eramateko

Maiatzean, hamabost urte beteko ditu Ahmedek eta oraindik gogoan ditu bere lagun minaren hasierako hitz haiek: ni Mikel naiz eta zu?

*Zorionak, GEU, segi dezazula urte askoan geure buruan eta Gasteizko bihotzean

Ez gara ez garenak

gerardo markuleta

Ni naiz umetan Bitorixara ailegatu eta, autobus-geltoki zahar ilunetik ospital beldurgarrira bidean, amak Frantzia kaleko tabernan pintxoak eta Galerías Preciadosen liburu-saila promesten zizkiona.

Ni naiz gaztetxotan Vitoria-Gasteizera euskal filologia egitera etorri, eta urte berean Patxi Goenaga, Joseba Lakarra, Lourdes Oñederra, Pello Salaburu eta Ibon Sarasola irakasle izan zituen.

Ni naiz behin postetxera pakete baten bila joan eta ukatu ziotena, azalean "Markuleta Jauna" eta nortasun-agirian, berriz, "Markuleta Gutiérrez" jartzen zuelako.

Ni naiz ez aspaldi 'Vitoria eta Gasteiz' izeneko kazeta-zutabe bat -euskaraz- idatzi zuena, orduan -gaztelaniaz- "Posta, espainola; herria, euskalduna" izena zeukan egunkari batean.

Ni naiz Rikardo Arregiren '66 lerro hiri setiatuan' irakurri, eta Gasteiz Sarajevorekin nahastu zuena.

Zorionekoak gu. Geu, zorionak!

Euskara aldapan gora Gasteizen

karmele jaio

Euskarak aldapa handiak igo behar ditu oraindik Gasteizen, alde zaharrekoak baino gogoragoak, eta orain arte ez du eskailera mekanikoren laguntzarik izan horretarako. Beharko lituzke horiek eta beste hainbat bultzada egoera normalizatu batera heltzeko. Euskarak gure hirian bizi duen egoera askoz hobetu daitekeela onartuta ere, begirada duela hamabost urteko garaira eramanda, onartu behar da euskarak aurrerapauso handiak eman dituela gure artean.

Faktore askok eragiten dute gizarte baten euskalduntzean, eta hauen artean, komunikabideak oso garrantzitsuak dira. Zentzu honetan, Gasteizen euskara hutsean argitaratzen den aldizkari bakarraren lana goraipatu behar da. Gasteiztarrek hamabost urtetan zehar euskaraz irakurri ahal izan ditugu gertuko albisteak eta horrek euskara gasteiztarren altxorra ere badela gogorarazi digu.

Eskerrak eman behar dizkiegu euskarazko hedabideetan lan egiten duten profesionaleri, euskaraz lan egiteak zaildu egiten duelako eguneroko lana, eta bereziki urteurren berezi honetan Geu aldizkariari, hamabost urtetan zehar egindako lanagatik.

Leunago, baina ez larrosazko bide batetik

oskar espinosa

"Bertzeak oro izan dira bere goien gradora orai hura iganen da bertze ororen gainera", "...badirudi ezen bertze hizkuntza eta lengoaia komun guztiak bata bertzearekin nahasiak direla. Baina euskara bere lehenbizko hastean eta garbitasunean dagoela", "...eta halatan da hain estimatua, maitatua eta prezatua, non mundu guztiak bertze leinu eta jendaki guztien gainetik nahiago baitu euskalduna bere aldean", "encastillada entre estas rocas, a pesar del tiempo y sus estragos, ha sabido mantener su alma y cuerpo vivientes en un estado tan vigoroso y fuerte, que va a remozarse y aspira a la inmortalidad"... Etxepare, Axular, Etxeberri, Larramendi... ezin ditugu beraien hitz apologetikoak gogoratu, bat-batean ez dakit zerezko irriñoa ezpainetan azaldu gabe.

Geure hizkuntzaren arerioen aurrean, gorazarre eta gehiegikeriaren arma dialektikoak erabili zituzten, intelektuala baino gehiago, politikoa omen zen gerla batean. Antzinako horiek euskararen eta Euskal Herriaren ametsa bizirik mantendu zuten, euskara kultuaren hasierako garai zail haieran.

Gaur Euskal Herriko edonon ikasleak, irakasleak, gurasoak, langileak, etorkinak eta gainontzeko jende xumea euskaraz sumatzeak antzinako idazleena baino ederragoa dirudien amets batera, agian, eraman gintzake... hizkuntza normalkuntzara, leunago, baina ez larrosazko, ibiliago, baina ez oztoporik gabeko bide batetik.

Horretarako, GEUK ere Araban ahalegin polita egin du azken hamabost urte hauetan. Beraz, eskerrik asko langile, kolaboratzaile eta irakurle guztioi.

Izozki denden izpiritua

patxi zubizarreta

Dagoeneko badira hiru bat hilabete gaztaina saltzaileak gure kaleetatik joan zirela, eta, haiekin batera, kearen grisa, gaztainen marroia eta buzo urdinen iluna. Dagoeneko badira bi bat hilabete gure auzuneko izozki denda zabaldu zutela eta, hara sartzearekin batera, a ze kolore eta zapore festa. Eta dagoeneko, zer mila sorgin, bada izpiritua aldatzeko garaia.

Susmoa dut, euskarari eta euskal kulturari dagokienez, lotuago gaudela gaztaina saltzaileen izpirituari izozki dendetakoari baino, hau da, gehiago lotzen ditugula betebeharrarekin, egunerokotasun grisarekin edo eskakizunekin ospakizunarekin edo festa koloretsuarekin baino. Kanean gero eta gehiago entzuten da -parkeetan batik bat, ze patioetatik hasirik badakigu zein joera nagusitzen den-, baina aldi berean gero eta gutxiago ikusten da. Erdaraz bizi direnentzat ez dugu ikusgarri izatea lortu, ez dugu erakargarri egin. Printzipaletik urrun dago, Datotik urrun. Benetan uste dut hori izan behar dela gure ahaleginaren norabidea, eta argi gera dadila gaztaina errean zalea ere banaizela.

Euskararen munduak: geu

lourdes oñederra

Umetan "gaxua" esaten bazidaten, deserosotasun izengabe bat sentitzen nuen. Orain badakit pena emateak ez duela erakartzen eta biktimismoak mugatu egiten duela. Azken hori feminista batzuen idatziek jarri didate jakinaren gainean. Erakargarritasunarena, amodio eta adiskidetasunei leku handia ematearen eskarmentu gero eta luzeagoak.

Bizitzatik euskarari begira jarrita bada beste hau ere: errua beti besteri egozte umekeria da. Alegia, euskara zanpatu bai, baina abandonatu ere egin dela eta hobe dela hori horrela analizatzea. Adibidez, gogoan dut euskal ahoskera "bulgarismotzat" jotzen zuen katedraduna (eta ez zen etsai espainola, euskaltzale sutsua baizik).

Hizkuntza egoera txarrean egon dela eta dagoela oraindik ere lekuren batean? Ados. Baina goretsi, lehentsi eta mimatuta ere bada go beste zenbaitetan. Ogibide eta pribilejio iturri ere bada.

Anitz dira euskararen munduak, baina anitzago behar dute oraindik. Orain arteko bideek egin dute berea. Berriek berri izan beharko lukete: hala izan beharko guke geuk ere.

15+15+15

jon arretxe

15 urte dira Geu sortu zenetik, eta 15 urte dira ni gasteiztatu nintzenetik, ikasketen aitzakiaz. Aldaketa handia egon da hirian bolada luze honetan egoera linguistikoari dagokionez. Lehen bazirudien euskaraz egitea "iparraldeko" estudiante edo funtzionarioen kontua zela. Gaur egun, oster, askoz hobeto gaude eta guztiz normala da gure hizkuntza aditzea kanean, eskoletatik gero eta euskaldun gehiago ateratzen ari dira...

Kakazko mezu ofizialista baikor horietarikoa dirudi orain artekoak. Askoz hobeto gaude ezin zelako txarrago egon, eta ezagutzaren datuekin konformatzen bagara akabo. Egia askoz gordinagoa da: duela 15 urte baino euskaldun gehiago daude Gasteizen, jakina, baina kanean entzun, lehen baino apurtxo bat gehiago besterik ez da entzuten. Espabilatzeko ordua heldu zaigu geutarroi. Nagikeria eta konplexuak baztertu eta hurrengo 15, 30 nahiz 45 urteetan euskara gehiago erabiltzen ez badugu geureak egin du.

geu aldiz
eusk

Sarrerak: - artium - elkar - gong lak
- parral, gora , hala bed

5

Jaialdi-gala

ARTIUM MUSEOAN

(PLAZA ARETOAn)

[ART+Sound]


MAIATZAK 11 , OSTIRALA

21:00 - 24:30

sarrerak: 5 euro [2,5 geu-ren harpidedun eta bazkide
(aldizkariko etiketarekin) + artiumeko kide elkartuentzat
/ bakarrik artiumeko leihatilan]

tomas san miguel + all jazz era + makala
banda + kunka + patxi zubizarreta +
gerardo markuleta + karmele jaio + txiki
tostado + kahina + isdeo + iñigo sarasola...

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Ekaria & elkarteak - 15 urte

ezara dastatu GEUrekin

maiatza07


egitaraua

kua - araba kulturala
di tabernak



Q AURKEZPENTXOA & KUNKA ANTZERKIA

kunka taldeak aurkezpen-sketxa eskainiko digu



Q TOMAS SAN MIGUELen kontzertua

euskal herriko sustraietan oinarritutako musika instrumental garaikidea. 'dan_txa' azken lana aurkeztera datoz



Q LITERATUR SAIOA

patxi zubizarreta, gerardo markuleta eta karmele jaio idazleak eta txiki tostado rapsoda



Q ALL JAZZ ERA TALDEAren kontzertua

funk, soul eta bluesa euskaraz bizkaitik



Q SABEL DANTZA: KAHINA

arabiar doinuko euskarazko 2 kantu dantzatuko ditu

Q MAKALA BANDA

soul, jazz, funky, reggae, latin, drum'n'bass'... zarauztik. 'hondartzan' lana aurkeztuko digute

Q BIDEO-PROIEKZIOAK GAU OSOAN ZEHAR

ISDEO artista gasteiztarrak diseinatutako proiektzioa, IÑIGO SARASOLA marrazkilariaren 3Dko animazioekin batera

IÑAKI ZIARSOLO

Ermuan jaio zen orain dela 28 urte. Duela 7 bat urte heldu zen Gasteizera eta Historia ikasi ostean hemen geratzea erabaki zuen. Momentuz oso gustura sentitzen da hiri honetan, hala ere, aukera duen bakoitzean mendira irteten da. Gaur egun irakasle moduan lan egiteaz gain, Hala Bedi irratiko bi saiotan parte hartzen du. Zaharrak Berri irratsaioan, historiaren inguruan elkarrizketa interesgarriak egiteko aukera du, eta Txorro Morro umeei zuzenduriko irratsaioan interkulturalitatea jorratzen du.

“Gaur egungo joera politikoak ezin dira historiako pasarteekin justifikatu”

t. naroa cuesta & ainhoa arriaga
a. edorta sanz

Duzun biziorik handiena? Mendia.

Bertuterik? Pazientzia.

Akatsik? Batzuetan urduria naizela.

Zure gorputzaren atalik politena? Nire amak esaten dit begi politikak ditudala, eta pianojole baten eskuak.

Zer eskatzen diozu bizitzari? Umorea.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Jendearen ganoragabekeriak. Hipokrisiak.

Noiztik ezagutzen duzu GEU? Gasteizera etorri aurretik ere, banekien existitzen zela. Bagare euskaltokian ikusi ohi nuen.

Beldurrik? Bakardadea.

Oporrak non eta zertarako? Mendian, lagun on batekin.

Nora ez zinateke joango? Leku masifikatuak ez zaizkit batere gustatzen.

Eguna ala gaua? Gogoaren arabera.

Liburu bat? Babilonia.

Film bat? El milagro de P. Tinto. Komedia absurdu moduko bat da.

Musika talde bat? Ez naiz oso musikazalea. Baina bere garaian asko gustatu zitzaizkidan Sin Dios, Tarzan eta noski, La Polla. Gaur egun Benito Lertxundi eta Mikel Laboa entzuten hasi naiz.

Kirol bat? Bizikletaz ibiltzea eta mendira joatea. Euskal dantzak ikasten hasi nintzen, baina gehiegi sufritzen nuen.

Zer da Gasteizek duen onena? Eta txarrena? Jendea, giro jatorra aurkitu daiteke. Txarrena aldiz, Udal barruan aurkitu daitekeena.

Gasteizko txokorik ederrena? Santa Maria katedralaren aurreko plazaren bestaldean dagoen parkea, ermitaren jatorrizko atea mantentzen da oraindik.

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen? Bai. Batez ere gaur egun jende gaztearekin.

Zer da irakasle lanetik gehien gustatzen zaizuna? Azaltzen dudana ulertzen dutela eta zerbaitetarako balio duela ikusten dudanean.

Anekdotaren bat? Orain dela pare bat egun 14 urteko ikasle bati Interviu-a kendu nion.

Uste duzu jendeak historiaz nahiko dakiela? Jendeak gehiegi hitz egiten du historiaz behar bezala jakin gabe.

Asteburuetarako plana? Gustatuko litzaidakeena... Arabako Errioxa aldean tour historiko-enologikoa egitea.

Iragana, gaur eguna ala etorkizuna? Gaur eguna eta etorkizuna.

Zer eskatzen du herriak? Ez dakit... zuri-toak, again. Hori bai, herriak umorea behar du.

Gasteiz egitea Araba egitea

Euskal Herria egitea

pakean

etorkizuna eraikitzen
beste modu batean

www.euskalherriaegitea.org



eusko
alkartasuna
euskal sozialdemokrazia

Beti gauza bera irakurtzen duzu?



Pentsatu irakurtzen duzuna



Diario

Noticias de Álava

Zure izateko era

proposamenak

liburuak

'aulki bat elurretan' uxue alberdi

elkar-2007ko otsaila elkarlanean.com



idazle gazteentzako VIII. igartza saria irabazi zuen uxue alberdik ipuin-bilduma baten proiektuarekin, eta lan horretan urtebetez jardun eta gero, liburu amaitua plazaratzen du orain, suedian giroturiko istorio gazi-gozoz osatua.

kale txukunak, jende ordenatua, laku ederrak, elurrezko panpinak... eta eskale zarpailak, alkoholiko errukarriak, maitasun anemikoak, harreman izoztuak. horra hor suedian zati batzuk behintzat, uxue alberdik hautatuak eta moldatuak, ipuin liburu bat egiteko.

'nire hiriko poemak' ana urkiza

marrazkiak: elena odriozola
pamiela-2006 pamiela.org



*euria. euri-jasak hondartza basamortu bilakatu du.
geriza. kukuka dabilkidan laguna.*

ana urkiza (ondarroa, 1969): informazio zientzietan lizentziatua eta enpresa-komunikazioan aditua, deustuko unibertsitateko irakasle da gaur egun.

helduentzako bi ipuin-bilduma ditu argitaratuta eta bi poesia-liburu. haur eta gazteentzako idatzitako ipuin eta kontakizunen artean aipagarriak dira, besteak beste: 'betaurrekoak ditut eta zer?' (2001) eta 'amak plastakoa eman dit' (2004).

elena odriozola (donostia, 1967): "marraztea da nire lana. ez nuen bilatu eta nigana etorri zen. agian ez ninduelako kezkatzen. bizitzako gauza onenak kezkarik eta presarik ez duzunean agertzen dira. eta hemen nago eserita, zerbait zoragarriren zain".

'sua falta zaigu' katixa agirre

elkar-2007ko otsaila elkarlanean.com
(apirileko aleko okerraren zuzenketa)



lehenengo zigarrotik lehenbiziko ezkontzara, aurreneko desilusiotik zaputaldian instalatzera, intentsitate bereziz jantzitako zazpi istorio ehundu ditu katixa agirrek bere estreinako narrazio-bilduma honetan, gaztaro mitifikatuaren muga lanbrotsuak heldutasun harrigarri marraztuz. katixak hutsuneak idatzi dituela dio uxue alberdik.

katixa agirre miguelez gasteizen jaio zen 1981ean. gaur egun bilbon bizi da eta enkar guak onartzen ditu.

cd

'barikun' the uski's



oihuka - 2007ko martxoa
oihuka.com

parrandarako abesti fresko eta arinak dakartza the uski's taldearen disko berriak, 'barikun'. elantxobeko eta ibarrangeluko bost gaztek osatzen dute, eta hondartza giroa gogorazten duen musika alai eta bizia egiten dute.

the uski's taldearen rock&rollerako joera areagotu egin da lan berrian. gitarrek distorsio puntu handiagoa dute, zerbait gogorragoak dira, baina beti 60 eta 70eko hamarkadetakako amerikako soinetan iltzaturik dituzte begiak the uski's-eko musikariek. musikari beltzen ekarpenak jasotzen dituzte, eta kantu batzuek blues eta rockabilly ukitua dute. beste batzuetan, berriz, soul zertzeladak berezi dira. itsasoz, neskez eta batez ere, parrandaz mintzatu dira kantuetan. bizkaieraz, guztietan, elantxobeko eta ibarrangeluko herrixketan egiten den euskalki bitxian daude idatzia.

'ibilian' garbiñe



hirustarecords-2006
hirustarecords.com

bere ahotsa eta bere kantuak, hauexek dira garbiñeren tresnak, ez du beste ezerren beharrik. abeslari gaztea izanik, euskal musikaren ikuspegiaren dauden gutxi horietakoa, bere lehen lan diskografikoak aho zabalik uzten du edonor. bere kantuak, abesteko era eta bere musika guregana helarazteko sentsibilitate berezi hori dira gehien harritzen dutenak, izan ere, bere erreferentzi musikalak onenatarikoak dira: norah jones, billie holiday, edith piaf, allison krauss...

lanbidez, aktorea. 15 urtetatik, konpositore eta abeslaria. ezagunak ditu eszenatokiak, baina oraingoan gitarra alboan duela datorkigu lehen aldiz. bere lehen diskoa instrumentu aldetik oso aberatsa da, handikerietatik kanpo. garbiñe bera, gitarra eta ahotsa lagun dituela, trebatu musika-erkin: txema garces kontrabaxu eta baxua, xabi lopez gitarra eta mikel errazkin teklatu eta zuzendaritza musikalaren ardura-pean, besteak beste. inor ere epel utziko ez duen musikari eta pertsona.

**maiatzaren 22an gasteizko parral tabernan,
geu elkartearen eskutik**

GAZTEZULO

TXULOTIK ZULORA, GAZTEAK TXOKO BILA

Sei urteko ibilbidearen ostean, Gaztetxulo Euskal Herriko gazteen aldizkariak, eduki eta forman eraberrituta, Gaztezulo aldizkariari utzi dio lekua.



t. anakoz amenabar
a. gaztezulo

Parrandarako, literaturarako, kirolerako, sexurako, bidaietarako musikarako... etengabe bilatzen dute gazteek euren txokoa, beren lekua. Eta horretan laguntzera datoz 'Gaztezulo, hi eta hire munduak' aldizkari berria eta harekin batera jaio den webgunea ere. "Zulozaleak gara, eta gazteek sortutako zulo guztiak jaso nahi ditugu, gazteen bilgune izan nahi dugu", adierazi du aldizkari zuzendari Alberto Irazuk. Abian dira aldizkari eta webgune berriak, Euskal Herriko gazte guztien zuloa, planeta, bilgune izan nahi dutenak.

Sei urteko ibilbidearen ondoren, goitik behera berrituta dator. Atzean geratu da Gaztetxulo zaharra. Donostiako Irutxulo herri aldizkariaren baitan jaio zen 2000 urtean, Bagera euskara elkartearen eskutik, eta bide propioa hartu zuen denborarekin, Euskal Herriko gazteen artean erreferentziako hilabetekari bilakatu arte. Sei urte hauetan oso emaitza positiboak izan dituela

nabarmendu du Gaztezuloko komunikazio arduradun Aitziber Yartzak. "Momentu honetan 6.700 harpidedun dauzkagu, 10.000 gorako tirada eta 1.200 saltoki baino gehiagotan dago aldizkaria". Halere, aldaketa garaia zela erabaki zuen lan taldeak, izena eta izana aldatuta garai berri bat dute erronka. Gazteei begira betiere, produktu erakargarriagoa eta modernoagoa dute helburu.

Edukiari dagokionez, ohiko gaiekin uztartuta, molde eta joera berriak proposatuko ditu aurrerantzean. Zerbitzu eta teknologia berriei are tarte zabalagoa eskainiko die hemendik aurrera, kulturak garrantzi handiago izango du eta nazioarteari ere gehiago begiratuko dio Gaztezulok. Bost laguneko lan taldearekin batera beste hogeitabi kolaboratzaile arituko dira aldizkarian. Tartean, Sustrai Colina, Xavier Paia, Uxue Alberdi, Mattin, Fertxu Izquierdo, Onintza Enbeita, Jon Odriozola edota Harkaitz Canoren kolaborazioak ez dira faltako. Aldaketak aldaketa, ordea, hasierako filosofia berari eutsiko dio

Gazteen bilgune berria sarean

Maiatzarekin batera, halaber, webgune berria ere martxan jarri du Gaztezulok, aldizkariarekin batera. Sarean ere beren txokoa izango dute gazteek hemendik aurrera www.gaztezulo.com helbidean sartuta, munduan barrena dabiltzan euskal gazteek ere aldizkarira gerturatzeko aukera izango dutela bertan. "Webgunearen oinarri nagusia parte hartzea da. Antzeko kezka edo zaletasunak dituzten gazteekin hitz egiteko, aholkua eskatzeko edo emateko, zalantzak argitzeko, unibertsitateko apunteak trukatzeko, beste gazte batzuekin planak egiteko, jendea ezagutzeko, deialdiak egiteko, gela bilatzeko, bizikleta salgai jartzeko...", azaldu du Yartzak. Aukera ugari zulozaleen eskura, beraz.

Disko kritikak, internet edo sexuari buruzko zalantzak, elkarrizketak, parrandan ibil-

tzeko proposamenak, filmei buruzko kritikak eta beste hainbat eduki eskainiko ditu webgune berriak. Halere, "Zure lagun taldea" izeneko atala da berrikuntza nagusienetakoa. Gitarra jotzen ikasi nahi baduzu, udaran Argentinara bidaiatu luzea egin nahi baduzu, irakurtzea izugarri gustatzen bazaizu, ekologiak kezkatzen dituzten gazteekin harremanetan jartzeko txokoa izango da honakoa. "Behin erabiltzaile batek zaletasuna jarrita, kezka edo helburu berak dituzten gazteak berarekin harremanetan jarri ahal izango dira, eta taldetxoak osatuko dituzte". Nahi adina lagun talde izango ditu erabiltzaileak eta talde horietan kideek luze eta zabal hitz egiteko, aholkua eskatzeko, esperientziak trukatzeko edota hitzorduak egiteko aukera izango du.

www.gaztezulo.com

aldizkariak, Yartzak azpimarratu moduan: "aldizkari zirikatzaile bat da, alaia, baina aldi berean konprometitua".

Formari dagokionez, berriz, diseinu garbia- goa eta argi goa egitea izan dute helburu, argazkiei orain arte eman izan zaien garrantzia areagotuz. Gainera, orrialde gehiago, 80 bat, eta koloretan izango ditu denak. Yartzak azaldu bezala, "berria eta berritzailea" egiten ahalegindu dira. Gazteei zuzendutako produktua da, 20-27 urte bitartekoei, gazteagoak eta helduagoak Gaztezuloren irakurle ere badiren arren. Urtean kaleratutako 11 aleak 14 euroren truke eskuratuko dituzte harpidedunek.

Baina, aldaketen artean nabariena behar bada aldizkariaren izena bera da, garai berriaren isla. "Zuloak" gazteen bilgunerako ideia nabarmentzearekin batera, bide berri bati hasiera emateko aukera eman nahi dio: "2.000 urteaz geroztik bide propioa zeukan aldizkaria zen, eta orain izenez ere hala izateko eta Irutxuloren itzal hori behingoz gainetik kentzeko aukera zegoela ikusi dugu".

Egitasmoaren aurkezpen ofiziala iragan apirilean egin zuten Donostiako Tabacalera eta ondoren hiritar guztiei zabalduetako festa antolatu zuten Bilboko Kafe Antzokian, Selektah Sound System eta Kerobia musika taldeekin, break dantzariak lagunduta.

Apirilekoa izan zen lehendabiziko Gaztezuloa, berrikuntza nabariekin. Edukien artean, 'Sex in the city' (Sexua New Yorken) tele-saileko protagonisten antzera, "euskaraldizkarietan ohikoa ez den estetikarekin jolastuz" Yartzaren arabera, lau neska ezagun aritu ziren sexuaz lotsarik gabe hitz egiten. Azalean Ilaski Serrano kazetaria, Sara Cozar eta Aitziber Garmendia aktoreak eta Larratiz Arando sexologoa bildu zituen. Gainera, Galder Izagirre argazkilariak kaleko paretetako afixetako irudien begiradekin eginiko erreportaje fotografikoa eta Mikel Agote surfariari eginiko elkarrizketa ere aurkeztu zituzten. Gasteizko gau giroan barneratu eta bertatik bertara ezagutzeko aukera ere eskaintzen zuen lehendabiziko aleak.

Maiatzeko alean berriz, Tolosako Bonberena gaztetxea da protagonista eta gau giroan murgiltzeko Gernikatik osteratxoa egitea proposatzen digute. Halaber, sexuari buruzko zalantzak argitzen dizkigu, Biarritz Ballet Junior taldekoen entseu batean ere izan da eta The Who musika talde mitikoari buruzko erreportajea irakur daitezke, besteak beste.



gazteen

zuloa



katalogoak | aldizkariak | liburuak | agendak | gida komertzialak | kartelak | ...

zubillaga industrialdea, 9 • oñati • tfnoa. 943 783309 fax: 943 783133
gertu@telefonica.net

ABTX07

OIHANE PEREA ARABAKO TXAPELDUN BERRIA

**Perea izan zen finaleko bertso-
laririk onena, erraz eta akatsik egin
gabe burutu zuen saioa eta ia
hogeita hamar puntuko aldea
atera zion Iñaki Viñaspre
bigarrenari**

bertsozale elkarte

Apirilaren 21ean jokatu zen Arabako Bertsolari Txapelketako finala, Gasteizko Jesus Guridi Auditorioan. Entzuleek, bero hartu zituzten bertsolariak oholtzaratu orduko eta txaloz eta animoz eskertu zituzten bertsolarien eginahalak. Agurren ondoren, Manex Agirrek eta Juan Mari Juaristik ekin zioten lan puntuagarriari ofizioka, zortziko nagusian. Animalien babeserako egoitzan egin zuten topo, Agirre txakurra uztera eta Juaristi berriz erostera joana zen. Hotz hasi arren ale politak bota zituzten. Ariketa honetan onenak, Oihane Perea eta Asier Otamendi izan ziren. Elkarriketa txukuna osatu zuten irakasleen paperean, bata lanean gustura eta bigarrena, uztektan. <Baina Araba euskalduntzea hartu genuen helburu/hogeita hamar urte hauetan bide bikaina seguru/begira zure ingurura zerbait aurreratu dio>, esan zion Perek lehene bertsoan, eta Otamendik, institutuan kokatu zuen bere burua, <ume mokoek agintzen dute nik baino askoz gehiago>, erantzun zion.

Zortziko txikian aritu ziren bertsolari gehienak gusturen eta horren adibide izan zen, Otamendik eta Viñaspre egindako saioa. Otamendi semea, beste behin lotsatu egin zen Viñaspre aitarekin erosketak egitera joanda. <Aita beti esan dizut ez nabarmen-

tzeko/ Eroskin kondoirikan zuk ez erosteko> izan zen semearen lehen errieta, eta bigarrenean kaxako langilea auzokoa zutela eta kondoiak gordetzeko beharra azpimarratu zuen. Sendo erantzun zion Viñasprek, <hobe zu jaio aurretik erosi banitu> bota zion. Perea eta Juaristi bizilagun gisa jarri zituen gai-emai-leak, Juaristi gauero esnatzen zen Pereaen etxeko zarata zela-eta. Lan polita osatu zuten biek.



Puntuari erantzuten Iñaki Viñaspre nabarmendu zen gainontzeko bost bertsolarien gainetik. Bera izan zen bizitasunez, publikoaren txalorik zaratsuenak sortu zituena. Hamarreko txikian egin behar izan zuten hurrengo lana. Asier Otamendik maila ona erakutsi zuen, eta Perek txapelerako hautagaia zela frogatu zuen Agirrerekin egokitutako gaian. Bakarka behera egin zuen saioak orokorrean. Perek, sei hilabete lan bila igaro

eta beste behin lanik gabe etxeratu behar izan zuenaren, eta Enbeitak denda txikia utzi eta jubilatzeke prest zegoenaren larruan kantatu zituzten ideiarik onenak. Gainontzekoek, poto bana egin zuten.

Buruz burukoan aritzeko, Perea eta Viñaspre aukeratu zituen epaimahaiak eta arratsaldeko lanik onena osatu zuten 'Aizak hi mutil mainontzi' doinuaren. Perea, gauetz autoan zihoan eta Viñaspre aurkitu zuen auto-stopean. <Nire ondoan eseri behar da halako mutila> hasi zen auto gidaria. Viñasprek, igoko zela baina ez emozionatzeko erantzun zion, eta Perek <eraman behar zaitut laztana nahi duzun lekura>, bota zion. Aurrena etxera eta ondoren zerura bidean ipini zuen Viñasprek autoa, eta finaleko azken lanera iritsi ziren horrela. Kartzelakoan, Perek mailari eutsi zion, eta Viñasprek ostera, behera egin zuen.

Txalo artean hartu zituen entzuleriak azken erabakia eta txapeldun berria, Oihane Perea. Honek, bertso-eskoletan buru-belarri ari diren neskei, etxekoei eta bertsoa maite duten euskaltzale guztiei eskaini zien txapela.

ZORIONAK OIHANE!

sailkapena

Oihane Perea	599,5
Iñaki Viñaspre	570,5
Asier Otamendi	394,5
Manex Agirre	389,5
Juan Mari Juaristi	383,5
Zigor Enbeita	378

eguneko
menua

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

LA RIOJANA
on egin!!! **jatetxea**

bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa

SEX **PITILIN GORRI**

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60
DONOSTIA OIARTZUN

DIBUtec

Paper Bereziak
Arte Ederretarako Materiala
Ink jet original eta birziklatuak
Bulego Materiala
Enkoadernazioak
Plastifikazioak
Kopiak
Kamiseten Estampaketak

azkarprint
Imprenta / Inprimategia
Edozein inprimoketa

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ INPRIMATEGIA

Eraman
Argazki - Estudioa

Heracio Fournier, 23
(laborategia)
945 13 71 02

Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

AL
Auzo Lagun

ERKOP

ESKOLA ETA IKASTOLA
EZBERDINETARAKO
BEGIRALEAK BEHAR DITUGU

- * Euskara beharrezkoa da.
- * Egunean 3-4 ordu.
- * Kurrikuluma:

rrhh.urc@auzolagun.com

VIRGEN BLANCA

jatetxea

gosariak
eguneko menua - menu bereziak
kazolatxoak

ekitaldiak 21.00
ostegunero

☎ 945 28 61 99
Andre Maria Zuriaren plaza, 2 - gasteiz

PARRAL
TABERNA

Eguerditan, astelehenetik ostiralera

JANTOKI BEGETARIANO

SAN FRANTZISKO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.- 945 27 68 33

Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

Araba Giraldo

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

El Clarete
jatetxea

unai eta patri fdr. de retana

zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874

GAZTEEK GAZTEENTZAT EGINIKO **ALDIZKARI DIGITALA**



Eusko Ikaskuntzak Euskonews aldizkari digitala abiapuntutzat hartuz, oraingoan euskal gaztediari zuzenduriko plataforma berria argitaratu du. Euskonews Gaztea izenpean Euskal Herriko 13 eta 17 urte bitarteko ikasleek euren artikuluak idazteko, ekoizteko eta sarean publikatzeko aukera dute. Egitasmoa gauzatzen hasi zenetik urte erdi pasa da eta hogeitabat ikastetxek hartu dute parte dagoeneko. Gazteek eginiko aldizkari digitala astero argitaratzen da euskonews.com gunean.

t. josune velez de mendizabal a. euskonews

Helburua eta metodologia

Eusko Ikaskuntzak 2006ko abenduan martxan jarritako Euskonews Gaztea astekari digitalaren helburuak honakoak dira: teknologia berriak eta euskal kultura gazteriarri hurbiltzea.

Zuriñe Velez de Mendizabal eta Uxue Garate Euskonews gaztea astekari digitalaren arduradunen esanetan, "Batetik, euskara bultzatu nahi duen proiektua da. Momentuz, euskara hutsezko astekari elektronikoa baita. Bestetik, gazteengan memoria historiko bat sortu nahi dugu. Kontura daitezen beraien ingurua ez dela beti izan orain ezagutzen dutena bezalakoa, ohitura, hirigintza eta abar aldatu direla ikus dezaten. Azkenik, teknologia berrietan murgil daitezela ere bilatu dugu. Hau da, beraien lana word formatuan egiten duten arren, guk kazetaritza digitalaren oinarriko kontzeptuak azalduz maketazio lanaren nondik norakoak erakusten dizkiegu".

Edukiak

Euskonews Gaztea-k tokian tokiko gaiak lantzen ditu. Aldez aurretik adostutako egutegiaren arabera, Eusko Ikaskuntzaren lan-talde bat joaten da ikastolara bertako gazteekin, eta euren aurretik prestatu duten materialarekin, lan egiteko.

Eskatzen zaien materiala honakoa da:

- Elkarrizketa bat, herriko pertsonaiaren batekin (hari eginiko argazki batzuk ere ekartzea komenigarria da). 3 bat orrialde.
- 5 bat gai desberdin, gazteek hautatuak (herriko kultura, kirola, musika, artea,...), gai bakoitzak 2 orrialde edukiko dituelarik.
- Argazkiak (argazki zaharrak, efemerideko argazkiak, ikastetxeak...).


Honetaz gain badira ohiko atalak:

- Kultur Agenda (tokian tokiko kontzertuak, hitzaldiak, antzezlanak...).
- Lehiaketak (idazlanak, bertso-paperak, argazkilaritza, maitasun mezuena..., baita sariak ere, non esaterako, MP3 bat irabaz baitaiteke).
- Inkestak.
- Informazio gunea, non gazteei interesgarri suerta dakizkiekeen orrialdeetarako lotura edo linkak eskaintzen diren (unibertsitateko guneetara, kirol zerbitzuetara, kafe antzokietara...).
- Foroa, ikasleek proposatzen dituzten gaien inguruko iritzia jasotzeko.

Argitalpena eta hedapena

Astean behin (ostirale-
ro) kaleratu ohi da Euskonews Gaztea, euskonews.com gunean. Arduradunen esanetan "gazteen erantzuna oro har, sei hilabeteko lan denbora honetan, oso ona izan da. Batzuentzat etxeko lan soila izan daitekeena, beste batzuentzat berriz, ilusio handia da. Gainera lan horri irtenbide bat emateak, interneten euren lanak ikusteak, alegia, pizga-





ri bat sortzen du beraien- gan". Astebetez egoten dira argitalpenak ikusgai, ostean 'aleak' atalean sakatu eta ordura arte argitaratutako eskolen lanak eskuragarri daude.

EUSKONEWS GAZTEA 2007 ARGITARATU DIREN ALEAK

07.01.12	LA MILAGROSA IKASTETXEA	LAUDIO- ARABA
07.01.19	BURDINABARRA IKASTETXEA	TRAPAGA-BIZKAIA
07.01.26	OLABIDE IKASTOLA	GASTEIZ-ARABA
07.02.02	ZARAUBE INSTITUTUA	AMURRIO-ARABA
07.02.09	BERNAT ETXEPARE LIZEOA	BAIONA
07.02.16	OIARTZO BATXILLERGO IKASTOLA	ORERETA-GIPUZKOA
07.02.23	AIARA KANTZILLER INSTITUTUA	LAUDIO-ARABA
07.03.02	SAN JOSE CARMELITAS IKASTETXEA	SANTURTZI BIZKAIA
07.03.09	ORIOKO HERRI IKASTOLA	ORIO-GIPUZKOA
07.03.16	LIZARRA IKASTOLA	LIZARRA-NAFARROA
07.03.23	OLABIDE IKASTOLA	GASTEIZ-ARABA
07.03.30	BEGOÑAZPI IKASTOLA	BILBO-BIZKAIA
07.04.06	MENDEBALDEA IKASTOLA	GASTEIZ-ARABA
07.04.13	EKINTZA IKASTOLA	DONOSTIA-GIPUZKOA
07.04.20	KURTZEBARRI IKASTOLA	ARETXABALETA-GIPUZKOA
07.04.27	ELIZA ZAHARREKO IKASTETXEA	URDUÑA-BIZKAIA

EUSKONEWS GAZTEA MAIATZETIK EKAINA BITARTERA

EGUNA

2007-04-20
2007-05-04
2007-05-11
2007-05-18
2007-05-25

TOKIA

Andra Mari ikastetxea (Urduña)
Begoñazpi ikastola (Bilbo)
Bernat Etxepare (Baiona)
Mutrikuko ikastola
Biurdana ikastola (Iruña)

GARAGARDOTEGIA



HAMARRETAKOAK ETA KAZOLATXOAK

San Bizente aldapa, I GASTEIZ

artetxokoa




karen amaia gasteizko florida parkean

KAREN AMAIA, ARGAZKILARIA

FRESKOTASUNA BILDUZ PAISAIA SURREALEN MUNDURAT

Karen Amaiak erakusketa fresko eta originala du esku artean. 'Irudimenezko paisaiak' lanak, 38 argazkitan, eguneroko fruitu eta barazkiekin sortutako paisaia surrealak, fantastikoak, irudimenezkoak gerturaten dizkigu. Kolore biziak, forma berriak eta konposizioaren xarma, ikuslearen sentsazioen eskura.



t. maite lekue

a. karen amaia & edorta sanz

Alemanian jaioa eta holandar eta bilbotar baten alaba izanik zein eragin izan du honek zure ibilbide pertsonal zein profesionalen?

Uste dut bi kultura ezberdinetatik etorri izanak adimen zabalagoa eskaintzen dizula, irekiagoa egiten zaitu eta horixe bera argazkigintzan ere islatua ikusten da. Herrialde bakoitzaren eraginek, kultura aniztasunak eta ohitura desberdi-

nek modu diferentean ikustarazten dute artea bera eta honek pertsona aberasten du.

'Irudizko paisaiak' erakusketak mundu surrealak iradokitzen dizkigu hain arruntak diren barazki eta fruituetatik abiatuz. Zein teknika erabili duzu fruita eta barazkiak paisaia elementu bilakatzeko?

Lehenik eta behin, deigarri suertatzen zitzaidan paisaia batean pentsatu behar

karenamaia@euskalnet.net



izan dut, egotea gustatuko litzaidakeen paisaia batean. Sentipen atsegin, bero eta gozagarri bat igorri nahian. Horregatik lehen pausoa egin nahi nuena marraztea izan da. Gero, fruitu eta barazkiak bilatzea; beren koloreagatik, ehunduragatik irudikatutako paisaiarekin bat egiten zutela egiaztatu behar izan dut. Ondoren, irudiak hartu, fruitu eta barazki bakoitzarena, bakan-ka, hasieran egindako bozetoan agertzen ziren angelu eta argi faktoreak zainduz betiere. Honen ostean ordenagailuaren bidezko lana heldu da, ordu askotakoa eta pazientzia handia behar duena, fruitu bakoitza moztu eta garbi utzi behar baitzen. Eta azkenik, prozesuaren alderik ederrena, konposaketa egitearena, argazkia sortzearena, alegia.



Zein sentipen jaso dituzu erakusketa ikusi duen jendearengandik?

Oso onak. Egia esan ez da gainezka egin didan gai bat denborarik izan ez delako. Jendea liluraturik geratu da; originala, deigarria eta koloretsua da, tonu ezberdin eta biziez betetako argazkiak direlako, atentzioa ematen dutenak nabarmenak direlako. Gainera irudikatzen diren mundu surrealen gehigarria dago, egunerokotasuneko objektu batzuekin irudimenezko munduak sortzearena hain zuzen. Badirudi jendeari gustatu egin zaiola argazkien atzean dauden elementuak deskubritzen joatea.



Zertan ari zara orain lanean? Zein da zure hurrengo proiektua?

Illo berean ari naiz lanean baina ikuslea asperraldira eraman gabe. Uste dut oraindik hainbat paisaia gehiago sortu daitezkeela, gauza desberdinak egin daitezkeela aurrez erabili ez ditudan elementuez baliatuz. Lantzen ari naizena fruitu lehorretatik abiatzen da, barazki eta fruituren bat erabiliz jakina, eta espeziaren bat eta lekaleak ere erabiltzea pentsatu dut.

Gasteizen Ignacio Aldekoa Kultur Etxean izan zen ikusgai 'Irudizko paisaiak' lana, hala ere, uste baino denbora gutxiago izan zen bertan. Zer dela eta programaketa aldaketa hau?

Erakusketa espero zena baino hilabete gutxiago egon da ikusgai. Programazio akats izugarria izan zen, horrela definitu dute behintzat antolatzaileek. Kontua da Micaela Portillaren jardunaldiekin bat egin zuela data hauetan. Erakusketak programatzen dituen Esteban Lozanok aspaldi eman zizkidan niri datak, baina hau gertatu ostean berau mantentzen saiatu ginen eta ez zen modurik izan. Jendeari asko gustatzen ari zitzaion eta minduta sentitu ziren erakusketa kentzean, azkenean hamabost egun besterik ez baitzen ikusgai egon.

Pentsatu al duzu 'Irudizko Paisaiak' epe laburrean mugitzea ikusi gabe geratu garenoi aukera luzatzeko?

Bai noski, eta ahal dudan eta azkarren. Kontua da erantzunen zain nabilela oraindik. Momentuz Bizkaia aldetik mugitzen ari naiz gehienbat; Bilbon ere erakusketa prestatzea gustatuko litzaidake. Bestalde, Gernikan zeozer erdi lotua daukat. Nik lana erakutsi nahi dut. Gasteizen oso motz geratu da eta jendeari gustatzen ari zitzaion, katalogoak bat-batean agortu ziren eta nire helburua argazkiak jendeari hurbiltzea da.

'Euskal Herria' zein 'Lur' aldizkarietan argitaratu dituzu hainbat lan, baita hainbat lokal eta arte-aretotan lanak paratu ere. Non jarraitu dezakegu Karen Amaiaen lana?

Memento honetan Lur aldizkari azken alean nire argazki batzuk argitaratu dira. Euskal Herria aldizkariari dago-kionez aldiz, Bilbon 'Irudizko paisaiak' aurkeztu ondoren bertarako erreportaia bat egitea eskaini zidaten. 'La Taberna de los mundos' lokalean ere argazki pare bat ditut, bai Bilbon bai Gasteizen. 'El

'Irudimenezko Paisaiak' Gasteizko Ignacio Aldekoa Kultur Etxean inauguratu zen otsailaren 1ean eta hilabete bereko 17a izan zen azken eguna. Erakusketak martxoaren 17ra arte egon behar zuten ikusgai.


Karen Amaia Carmelo Bilbao-Unanue margolariaren alaba da. Bertatik jaso ditu bere argazkietan nabari diren eragin piktorikoak, René Magritteren surrealismotik abiatuz eta Vincet Van Gogh-en inpresionismo-raino heldu arte.

Karen Amaia Bilbao der Kinderen Friburgen (Alemania) jaio zen 1965ean. Psikologian lizentziatu zen eta argazkilaria bezala dabil lanean 1990. urtetik. Urtero erakusketa berri bat egiten saiatzen dela diosku.



KAREN AMAIA

reino de las luces' izeneko erakusketa egin eta gero tabernak argazki pare bat hartu baitzituen, hau izan ohi delako tratua. Bestalde, merkatuan aurki daitekeena, argitalpen bat da, 'Fotos en Flor' izenekoa. Bertan lore basatiak makroargazkigintzaren bidez hurbiltzen dizkiot jendeari. Bi liburutan banatutako argitalpena da eta bakoitzean 75 argazki inguru erakusten dira, Bizkaiko basoetan topa ditzakegun 1.200 lore ingurutik hautatu ditugun 150 pieza ■





DANTZA EZAZUE, MADARIKATUOK!

ARGAZKIAK: GALDER IZAGIRRE. TESTUA: ANDER USABIAGA

BALLET BIARRITZ JUNIORREKO GAZTEEKIN IZAN DA GAZTEZULO

Sidney Pollacken film ezagunean (The Shoot Horses, Don't They?) protagonistak dantza egitera kondenatuta zeuden. Goseak eta miseriak

hartara kondenatuta. Ballet Biarritz Juniorreko kideak ere dantza egitera kondenatuta daude. Baina barruko

grinak kondenatu ditu haiek horretara.

Dantzari profesionalak izan nahi bai-



Hamar neska eta mutil aritzen dira Ballet Biarritz Junior taldean

tute Ballet Biarritz Juniorreko gazte-ek. Horregatik aritzen dira egunero, asteleheneretik ostiralera, Donostiako Egia auzoko kultur etxean, 09:00etatik 16:00etara. Horregatik pasatzen dituzte asteburuak herriz herri, jendaurrean dantza eginez. Horregatik alde egin behar izan zuten duela urte batzuk gurasoen etxetik goi mailako akademia batera joan ahal izateko. Jaioterria, mutil edo neska laguna, beste zaletasunak... dantzaren esanetara jarri baitituzte gazte hauek. "Dantzari profesionala izan nahi duenak gainerako guztia sakrifikatzeko prest egon behar du", dio Erick Odriozola gabiriarrak. Kondena gogorra dute, beraz, Ballet Biarritz Junior taldekoek. Gogorra bezain gozoa.



BALDARKERIETAN

AEBetako herri bateko hilerriko hilobiak hondatu zituen 26 urteko gazte batek lana erabat erraztu dio poliziarri. Gazteak 53 hilobi hondatu zituen; 'eginkizun' horretan zebilela, behatz batean zauria egin eta odol arrastoa utzi zuen hilerritik etxeraino. Arrastoa jarraitu baino ez du egin behar izan, beraz, poliziak Adam Warner harrapatzeko. Warnerrek salaketei aurre egin beharko die orain.


TXIMINO ARDOZALEAK

Budapesteko zoologikoko tximinoek 55 litro ardo edaten dituzte urtean.. "Ardoa onuragarria da haien odol zelulenzat, eta gutxi eta tearekin nahasturik hartzen dutenez, ez dira inoiz mozkoztzen", azaldu du zoologikoko bozeramaileak. Kontuak kontu, zoologikoa ardurik merkeena ematen omen die tximinoei, eta GAZTEZULOn krudel samarra iruditu zaigu; Nafarroako edo Irulegiko ardoa bidaltzea aztertzen ari gara, beraz.



BONBA BAT, PATATA FRIJITUEN ARTEAN

Hanburgesan topatutako arratoiari buruzko kondarirak patata frijitu artean topatutako bonbari lekua utziko dio laster. Izan ere, Ingalaterrako Scarborough hiriko patata frijitu fabrika bat bi egunez itxi behar izan dute, patata artean granada bat azaldu delako. Dirudienez, Frantziatik eta Belgikatik inportatutako patatekin batera, hango lursailetan lurperatutako Bigarren Mundu Gerrako granadak iritsi ziren lantegira.



HIRE GUSTUKO ZULOAK



Katalina Eleizegi 36, behea - 2009 Donostia
Tel.: (0034) 943 457250 harpidetza@gaztezulo.com



hilabetero kioskoan

izena _____
 abizenak _____
 helbidea _____
 herria _____ posta kodea _____
 telefona _____
 adina _____ e-posta _____
 kontu korrontea _____

gaztezulo
HI ETA HIRE MUNDUAK



txabi arnal gil

TTANTTAKA

Asko gara azkeneko hamabost urte hauetan, alez ale, ttanttaka, GEU aldizkariaren irakurle zerrendari gehitu gatzazkionak. Eta jakin badakigu datozenetan beste lagun asko elkartuko zaigula, besteak beste: zu, hura, haiek, zuek, horia, zuria, beltza, gorria, Gizon Ikusezina, Wonder Girl, Batman, lotsatia eta lotsagabea, gamelua, tabernaria, zure neska-laguna, ileapaintzailea, fresatzailea, igeltseroa, harakina, haragijalea eta barazkijalea, tximaluzea, burusoila, beheko auzotarra, goikoa, Fernandez, Etxebarria eta Perez de Armiñon, zure mutil-laguna, horkoa, hemengoa eta hangoa, etorriko dena, ilargia, hodeiak, eguzkia, Bob Dylan, Keith Richards, Aretha Franklin, zure ama, zure aita, Faemino, Cansado, porno-izarra, argala, lodia, Andres, Mohamed, Igor, Kiara, Julen, Julia, Kepa, Edurne, Ascension, Zoraida, Augusto Jesus eta Kiala.

Guztioi 245676576567769 esker. Bihotzez.

haur&gazteliteratura

BATZUETAN ATSEGIN DUT BIL-BIL EGINDA EGOTEA

t. txabi arnal gil

Zer da beste ezeren gainetik Wombat txikiak atsegin duen hori? Jauzi egitea? Oihu egitea, agian? Jirabiraka ibiltzea? Bere inguruak behatzea? Mihia ateratzea? Aurpegi arraroak jartzeta? Zikintzea? Korrika egitea? Ez, ez eta ez! Wombat txikitxoak gogokoen..... Zeuek igarri beharko duzuen hori!!

Oraingo honetan *Ttarrantalokoek* bete-betea asmatu dute, euskaratu baitigute txikitxoenen oso gustukoa den ipuin xarmangarri eta gozo hau.

Dibertigarria, irakurterraza eta, hala eta guztiz ere, hiztegi jario eta aberatsekoa. Eta adjektibo hauexek marrazkiei ere egokitu behar dizkiegu. Egia esan, oso zaila izaten da Wombatena bezalako hain aurpegi adierazgarriak topatzea, gaitza sinpletasunari horrenbeste Ébardura ematea.

Gertatzen da *Batzuetan atsegin dut bil-bil eginda egoteak* Christiane Pieperren *Munduan barrena noraezean*, *Hartza eta Kattalin* klasikoa ekartzen digula gogora, baina horrek ez dio inolako originaltasun eta erakargarritasun izpirik kentzen, abiapuntua zein ikuspegia ezberdinak direlako.

Hartu, beraz, bata ala bestea. Hobeto: har itzazu biak. Zure seme-alabek eskertuko dizute. Zalantzarik ez!

"...Batzuetan, ziztu bizian korrika egitea gustatzen zait. Batzuetan, aurrena heltzen naiz, eta beste batzuetan, azkena. Baina eguna bukatzen eta eguzkia sartzen hastean egiten dut ongien egiten dakidana. Leku bigun bat aurkitu, leku eroso eta txiki bat..."■

Batzuetan atsegin dut bil-bil eginda egotea.
Vicki Churchill-Charles Fuge. Ttarrantalo, 2006



ENVIOS Y DISTRIBUCIONES ARABA S.L.

POSTA-MANIPULAKETA ERLAZIOZKO MARKETINGA POSTA KUDEAKETA INTEGRALA
 POSTA-ZIURTAGIRIAK LOGISTIKA INTEGRALA POSTA-KUTXAK

"GEU-K 15 URTE, EUSKARAK 15 URRATS. ZORIONAK!"

Aratz kalea, 22-behea - Ansoleta Industrialdea - 01006 Gasteiz Tel. 945 150 628
 araba@distribucionesaraba.com www.distribucionesaraba.com

Jaia Laia eta **berria**ren eskutik

Fermin Muguruzak prestatutako musika bilduma bikaina



HARPIDEDUNENTZAT,

%20 merkeago

Eskaria egiteko: 943 30 43 45

Harpideduna ez bazara, egin zaituz BERRIaren harpidedun, hilean 27 euro bakarrik ordainduta*, egunero etxean hartuko duzu egunkaria, eta doan izango duzu bilduma hau.

*Asteartetik igandera urte osoan harpidedun berria egiten dutenentzako promozioa. Bilduma osatzen denean, ebera hitako zaku, jasotzeko induko kosturik gabe.

'Musika Munduko Jolastokian'

EUSKAL HERRIA J.C.Perez: Flannery eta bere astakiloak
 JAMAICA Cedella Marley-Booker with Taj Mahal: Smilin' island of song
 EUSKAL HERRIA Jabier Muguruza: Ja, ja
 LIVERPOOL The Beatles songs: All you need is love
 KUBA Liuba Maria Hevia: Travesía mágica
 HEGOAFRIKA Ladysmith Black Mambazo: Gift of the tortoise
 NEW ORLEANS Buckwheat Zydeco: Choo choo boogaloo
 MEXIKO Los Lobos with Lalo Guerrero: Papa's dream

**Maiatzaren 5etik aurrera
larunbatero disko bat kioskoan**



+ 5,30 €

Babeslea



Gipuzkoako Foru Aldundia

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

GASTEIZKO ALDE ZAHARRA 1562ean



t. kike fdz de pinedo, filologoa

Azken hiru urteetan irailaren asteburu batean Erdi Aroko Azoka ospatzen da Gasteiz zaharraren kaleetan barna. Jaia, urtez urte, gero eta arrakasta handiagoa lortzen ari da eta giro polita sortzen da. Hala eta guztiz ere, enpresa baten bidez datorenez, berdina ikus daiteke Toledon edo Arandan. Eta batek baino gehiagok orain dela 500 urteko gizarte gasteiztarraren girora hurbiltzeko ahaleginak egitea eskertuko genuke. Euskararen agerpena ere murrizta izaten da, arrotza ote zen gure Erdi Aroko kaleetan euskara? Badakigu ezetz, besteak beste, gure hiritik pasa ziren hainbat bidaiariri esker. Horietako batek, Nicolae Landuchio italiarrak, 1562an lehen euskal hiztegia utzi zigun, Dictionarium Linguae Cantabrigiae. Hiztegi hau egiteko bertako hiru laguntzailez baliatu omen zen. Erdararen eragina nabarmena da, seguru asko garai hartako hiritar merkataritza-giroko hizkuntz egoera elebidun eta diglosiakoaren isla. Era berean, itzulpenak egiteak dakarren desitxuratzea, laguntzaile hauen euskararen ezagutza, eta lan hau egiteko jarritako gogoia kontuan hartzekoak dira ondorioak ateratzeko orduan. Kontuak kontu, eta erdarakada hauek direla medio, aurreko mendeetan harribitxi hau baztertua izan zen, ahalik eta Mitxelenak bere balioa berreskuratu zuen arte, eta bidenabar Gasteizen kokatuz. Mendebaleko (bizkaiera) formak nagusitzen dira (*verba equin, gura*), baina ez dira falta zenbait ekialdeagokoak (-kin, enequin). Arlo filolo-

arrotza ote zen gure erdi aroko kaleetan euskara? badakigu ezetz, besteak beste, gure hiritik pasa ziren hainbat bidaiariri esker

gikoa interesgarria bada ere, artikulu honetan Gasteizko kale, lanbide eta gizarte haren euskal izenei erreparatuko diegu batik bat.

Alde zaharreko kaleak

Hiztegi zerrenda baliotsu honetan Gasteizko bi kale aurki daitezke: **Zapatari kalea** (*çapatari calea-çapateria*), eta bestea, **Zamar-gin(a) kalea** (*çamargina calea-pellegeria*). Eta zein da kale hau? Honetarako Venancio del Val-en 'Calles vitorianas' liburura jo eta hauxe dio: "Correría... destinada a la venta de correas y demás artículos destinados a la guarnicionería, también se le atribuyeron los nombres de Correjelería y de Pellejería, por la venta de correjeles y derivados, y por otro lado, el de pellejos y corambres para los vinos que en los tiempos pasados se recogían en las viñas existentes en las afueras de Vitoria ". Hortaz, oraingo Hedegile/Corre-ria-z ari da. Zergatik ez berreskuratu jatorrizko aldaera hau beste izenekin batera? Informazioa osatzeko esan dezagun langintza hauetarako behar zuten larrua bertatik aterako zutela. Izan ere, kalearen atzealdean eta harresiarren ondoan Harategi/Carnicerías kantoitik Anorbin kantoit bitartean hiriko animalia hiltegia zegoen eta harresian egindako ikerketek frogatzen dutenez XV-XVI mendetik 1942ra arte bertan izan zen. Ondoan merkatu plaza ere bazen eta V. del Valek kontaktatzen digunez bertan auzoko jaietan zezenketak egin ohi ziren.



Alde honetako Herreria kalea ez dakigu nola izendatuko zuten, baina hiztegian dugu: **herreroa-herrero**. Kale hau itxiz bigarren harresia zegoen, orain dela gutxi obra batzuetan ikusi ahal izan den moduan. Harresi hori **zerkea** izendatzen bide zuten: **çiudadeta çerquea-muro de ciudad**. Hau diosku V. del Valek: "la calle de las Cercas Bajas -llamada así para distinguirlas de las Altas, edificadas al pie de da las segundas murallas de la Ciudad- ostenta tal nombre que es primitivo, desde el siglo XIII. Fue en sus principios uno de los barrios de labradores que rodeaban la capital". Hitz honetan eta hiztegi osoan ere Arabako euskararen ohikoa zenez, hitz bukaerako -a + -a mugatzailea, -ea ahoskatzen da (**aytea, amea, assabeamea-abuela, assabeaytea-abuelo, erdarea-romançe...**).

Aurreko 3 kale hauek 1202koak dira, geroxeago 1256an beste aldeko hiru kaleekin "almendra" osatu zuten. Aiztogile-Kutxillera kalea eta Pintoreria-Pintore ez dira aipatzen, bai ordea, **ganibetea-cuchillo** eta **pintorea-pintor**. Hiztegiak ere **juderia-juderia** dakar eta jakina denez, 1492 urtera arte hau izan zen hirugarren kalea. Urte hartan gasteiztar juduak kanporatu edo kristau bihurtarazi zituzten. Bitxia da 70 urte beranduago oraindik **juducumea-confesso** izendatzea azken hauek.

Orduko Gasteiz jauntxoez gain dendari, merkatari, jorنالari eta gremio guztietako lanbideen topaleku bilakatu zen. Hona hemen adibide polit batzuk: **mercataria; aguadero-aguadero; alcahuetea; andra labaçaya-hornera; andra lagunçallea-ayudadora; oquina-amassador; barberoa-barbero, çirujano; urraguina-platero, bodegoneroa; çamarruguina-pellegero; carneçeria; carpenteria; narruak curtidu-curtir cueros; errotaria; esclavea-negra de Guinea; oyal garvisçallea-lavador de paños; jornaleroa; maestra; scola; apaeça; ostaleria-meson; bodegoya-bodegon, taverna; puteria-burdel, mançebia; putea-puta, ramera; abelçaya-pastor; xorguina-bruxa; xorguinoa-bruxo...** Agintarien aipamenak ere ez dira falta: **alcate nausi; alcate chiquirra-alcade menor; conçejuia-ayuntamiento; corregidorea**.

Eta jakina! Lurtar guztiek bezala euskaraz ere bazuten egarria eta gosea kentzekoak: **ardaogurea-dado a vino; ordia-borracho; andray emona-dado a mugeres; guiçona afixionaytadan andrea-amadora de varones; amorantea andreana-** amigo de muger...■



kike fdz. de pinedo

SORTU, GARATU ETA EUTSI

Euskara elkarteak, euskaltegiak, eskola-ikastolak, euskara planak eta jende askoren borondateari esker euskara aurrera joan da azken urteetan gure lurraldean. Piztinara, jolas parkera edo kalera zoazela gero eta arruntagoa da elkarrizketak euskaraz entzutea. Aurrerapauso hauek, baina, sendotu eta garatu behar dira. Pixkanaka baina sendo. Gasteizko eta Arabako euskara elkarten egoera ez da suziriak botatzeko modukoa. Euskaldunon eskubideak aldarrikatzeko eta euskararen kontrako erasoei aurre egiten gai izan gara, kanpaina eta ekintza onak ere ez dira falta izan. Baina sinergiak bilduz egitasmo sendoak sortu eta garatzeko gaitasun gutxi izan dugu. Baliabide eta diru laguntzetan beti estu ibiltzeak ez du lagundu bat ere. Halere, egitasmo batzuk sortu, garatu eta iraun dute denboraren poderioz. Geu aldizkariak halaxe egin du, zailtasunak zailtasun jakin du irauten eta sendotzen. Eta konturatu gabe 15. urtebetetzera iritsi da. Segi dezala beste horrenbeste. Ea aurten ere Hamaika telebista bidaide duen.





URTEURREN PLATERA, CLARETE JATETXEAREN ESKUTIK

BASERRIKO ARRAUTZAREN GORRINGOA, TXORIZEROEN ETA PATATA, OGI ETA TXORIZO APURREN SALTSAN MELATUA

OSAGAIAK:

2 patata - txorizo erdia - ogi izoztu bat - 4 tipula
8 piper txorizero - hegazti salda - baserriko 4 arrautza - oliba olio

PRESTAKUNTZA:

Txorizeroen salta: tipulak zuritu eta dadoetan zatitu ondoren, kazola batean jarri biguntzen. Behin bigundu ondoren, erantsi hegazti salda beroa eta egosten jarri. Salta nahikoa lodituta-koan, piper txorizeroen haragia erantsi. Birrindu eta berriro egosi, gatz puntua ondo dagoen egiaztatzeko aprobetxatuz. Gerorako gorde.

Arrautzari laguntzeko osagarriak: patatak zuritu eta dado txikietan zatitu; olio ugaritan frijitu. Frijituta daudenean, gatz bota eta gorde.


Ogi izoztu bat erabiliko dugu, errazago zuritu eta txikitu ahal izateko. Txiki-txiki egin eta frijitu. Patatari erantsi.

Txorizoa ere lehorra izatea komeni da, errazago txikitzeko eta aurreko pausoan egin dugun gauza bera egiteko: txiki-txiki egin eta frijitu. Aurreko nahasketari erantsi.

Arrautza: gorringoak eta zuringoak bereizi. Olio epeletan, hatza sartu eta, beroa sentitzen dugunean, gorringoak bota eta sutatik kanpo 30 segundo inguru eduki. Olioak ez du oso bero egon behar, gorringoa ez gogortzeko edo frijitzeko.

AURKEZPENA:

Plater sakon edo katilu batera burruntzali bat salta bero bota, gorringoa gainean kokatu, kontu handiz, apur ez dadin, eta amaitzeko, gorringoaren inguruan xehatutako patata, ogia eta txorizoa jarri. Gatz apur bat bota gorringoari eta perraitz apur batekin apaindu.



dalvez

maketazioa | inprimatze-lanak | diseinua



- aldizkariak
- liburuak
- afixak
- iragarkiak
- katalogoak
- logotipoak
- irudiak
- egutegiak

www.dalvez.com

diaz de olano kalea, 22 -behea - telefonoa: 652 77 65 09 - faxa: 945 24 52 69 - info@dalvez.com



GEU

**urtean
11 ale
20 eurotan**

geugaste@grn.es geu@geugasteiz.com

www.geugasteiz.com

geu aldizkariko harpideduna izan nahi dut

> izen-abizenak: _____

> helbidea: _____ > telef zk.: _____

> hiria-herria / posta-kodea: _____ > herrialdea: _____

> kontu korrontearen 20 dijitoak + titularraren izen-abizenak: _____

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Geu aldizkaria

Pedro asua kalea-2-3.a | 01008 gasteiz


945222153

lauhitzetan



bizikletaren museoa

aiara eskualdeko txirrindularitzaren historia bertatik bertara ezagutzera emateko asmoz, bizikletaren museoa ireki berri dute amurrion. bost hilabeteko lanari esker, mila argazki baino gehiagoz, mailotez edota bizikleta zaharrez gozatu ahal izango dira gerturatzen direnak.



artiumen artelanak nazioartera

artium arte garaikideko museoak new york eta chicagora eramango ditu gizakiaren inguruan hainbat artistak egin duten gogoeta. jorge oteizaren 'mallarmeren omenaldia', eduardo chillidaren 'besarkada' edota carmen calvoren 'euriaren hotsak gora negar egin zuen' lanak izango dira, besteak beste, ikusgai.



europa betagarriekin dantzan

gasteizko betagarri taldeak europatik barrena apirilean hasitako kontzertu birarekin jarraituko du maiatza eta ekainean ere. 'hamaika gara' disko berriko abestiak suitza eta alemanian aurkeztu ondoren etxean ere hainbat kontzertu emango ditu. ekainaren 17an argantzonen izango den araba euskaraz ere egingo dute geldialdia.



irakurzale sarea abian

euskal literaturzaleen arteko lan eta harreman egitura sendotzeko asmoz, '111 academia' aurkeztu berri dute donostian. bertan euskal herri osoko 111 irakurlek parte hartuko dute, herrialde bakoitzeko ordezkari kopuru zehatz bat lortuta. oraingoz, urteko liburu onena saritzea izango dute eginkizun.



300 fosil gasteizko kordoi etxean

gasteizko kordoi etxeak 300 fosilen bilduma izango du ikusgai maiatza erdialdera bitartean. hiru bildumazalek eginiko lanari esker, euskal herriko eta nazioarteko aztarna ikusgarriak biltzen dira bertan. besteak beste, mapa geologiko batek arabako txoko bakoitza, aro ezberdinen arabera, zer izan zen erakusten du bildumak.



GEU JAIALDIA

15 urte euskara ospatuz


FESTIVAL GEU

15 años celebrando el euskera

Kunka
Tomás San Miguel
All Jazz Era
Makala Banda
Recital Literatura Emanaldia
ISDEO
Kahina



Laguntzaileak/Colaboran:



MAIATZAREN 11n
11 DE MAYO

ARTIUM. Plaza aretoan. 21:00etan
ARTIUM. Sala Plaza. 21:00h.

berria

Diario

hala bedi



eitb

radiovitoria

Salneurria: 5 € (Kide Elkartuek 2,5 €)
Precio: 5 € (miembros Asociados 2,5 €)

Sarrerak aurretik salgai: Zentro-Museoko txartel-leihatila, Araba Kulturala, Parral Taberna, Gora Taberna, Hala Bedi Taberna, Elkar eta Gong-Lakua. Venta anticipada de entradas: taquilla del Centro-Museo, Cultural Álava, Taberna Parral, Taberna Gora, Taberna Hala Bedi, Elkar y Gong-Lakua.



araba euskaraz trebiñura

argantzongo ikastolak hartuko du aurten gasteizko armentia ikastolak utzitako lekukoa. "garenaren jostun" lelopean, ekin-tza ugari izango dira, ekainaren 17an, trebiñuko herria bisitatzeko dutenentzat. 11 ume eta bi irakasleekin hasi zen argantzongo ikastola 2003an, eta jada 39 ume eta 5 irakasle ditu.



jazz zaleak prest

urteroko zitari eutsita, gasteizko jazzaldiak musikazale ugari bilduko ditu, uztailaren 15 eta 21a bitartean, mendizorrotxa eta principal antzokian. tete montoliuren heriotzaren 10. urtemugan hari omenaldia eginez hasiko dute jazzaldia, eta bertatik igaroko dira, besteak beste, onette coleman saxojolea, chano dominguez pianista eta norah jones abeslaria.



gernika gogoan

gernikako bonbardaketaren 70. urtemugan ospakizun eta ekitaldiak ugari dira euskal herrian. tartean, bernardo atxagak 'markak. gernika 1937' izeneko saiakera liburua kaleratu berri du eta maskarada antzerki taldeak ere 'picasso 1937. historia del guernica' aurkeztuko du. hilaren 21ean amurrionara eramango dute antzezlan.



txikienekin jolasteko

haurrekin batera jolastu eta kantatzeko liburua atera berri dute hainbat idazle, musikari, irakasle, guraso eta haurren laguntzaz. 'txilipristin' liburuak 31 kanturen hitzak eta pentagramak biltzen ditu musikarekin batera. besteak beste, toti martinez de lezeak idatzitako testua ere jasotzen du.

gasteizko PERIaren aurkako manifestazioa



maiatzaren 12an manifestaziora deitu dute gasteizko alde zaharraren alde lan egiten duten azao, antiperi eta gasteiz txiki elkarteek, udalak onartutako auzoa eraberritzeko plana (peri) salatzen. auzokideen behar sozialei erreparatu gabe, peri-a zaharberritze komertzial, hirigintzazko eta turistiko hutsa dela salatuz, auzoak "peritontitisa" duela adierazi dute, bai eta medikuak "perifrenadol" errezetatu diola ere.



BIZIBIDAIA

PEDALEI ERAGINEZ



www.bizibidaia.com

Duela hamar urte jarri zuten lehenengoz zorroa bizikletan, Zuberoatik egin zuten ibilbide batean. Hamar urteren buruan betidanik izandako ideia gauzatu dute: Euskal Herria bizikletaz zeharkatzea. Mikel Bringas eta Rosa Lizaso bikotea, eta haien semeak, Eki Lizasok, iaz egin zuten Euskal Herriko itzulia txirringaz. Orora 1.200 km egin zituzten. Bidaia osoa gida zehatz eta landu batean jaso dute, eurek bezala Euskal Herriko bazterrak bizikletaz ezagutu nahi dutenek aukera izan dezaten gauza bera egiteko. Bizibidaia izenarekin bataiatutako egitasmoa denok ezagutzeko moduan dago jada.

EUSKAL HERRIARI BIRA



ia.net

t. edurne begiristain

a. bizibidaia

Urteak daramatzate Mikelek eta Rosak bizikletarekin munduan zehar txangoak egiten. Eta duela bi urte eta erdi inguru etxean bertan bidaiatzea erabaki zuten. Garai hartan Rosa haurdun zegoen, eta pentsatu zuten une egokia izan zitekeela Euskal Herria txirringaz zeharkatzeko. Pentsatu eta egin. Euskal Herrian bizikletaz ibiltzeko toki aproposenak bilatzeari ekin zioten berehala, eta orduan konturatu ziren gure herria oso toki aproposa dela bizikletaz ibiltzeko. Ideia horren atzetik segituan etorri zen beste bat: zergatik ez argitaratu bidaia horren inguruko gida bat, beste batzuek eurek egindakoa egin ahal izateko? Bi ideia horiek uztartuta jaio zen Bizibidaia proiektua.

Ez da makala izan bikote honek egindako abentura. Bi urte eta erdi eman dute bidaia burutzeko. Bi urte eta erdi horietan orduak erabili dituzte bidaia txukun prestatzen. "Hasieran pen-



BIZBIDAIA

**Maiatzaren
16an,
Hikaateneon
19:30ean,
Geu elkarte-
aren esku-
tik.**

**Ostera,
24an
Hegoalde
Gizarte
Etxean.**

tsatzen hasi ginen zeintzuk izan zitezkeen Euskal Herriko tokirik onenak bizikletaz ibiltzeko, bide berdeak eta bidegorriak batez ere, eta gero benetako lana izan zen puntu horien guztien arteko lotura bilatzea”, azaldu digu Mikelek. Hartarako, mapen aurrean orduak eta orduak pasa zituzten, eta behin ibilbide hoberena aukeratuta, bertara joan behar izan zuten bidea bizikletaz egitera, GPSrekin neurtzera, datuak ateratzera,... Askotan, gainera, leku berera bueltatu behar izan zuten aukeratutako ibilbide onena zela ziurtatzera, edo ibilbidea moldatzera. Gero, informazio hori guztia garbira pasatu eta bidegurutze bakoitzaren marrazkiak egin zituzten. Marrazki zehatzak izan ziren oso, ortofotoen gainetik egin zituztelako (hegazkin batetik eginiko argazkiak dira ortofotoak). Beraz, pedalei ematen ordu asko pasa badituzte ere, gehiago izan dira ordenadore eta mapen aurrean sartu dituztenak.

Behin dena prest zutenean erabaki zuten bidaiari ekitea. Ibilbide osoa (1.200 km) bitartean burutzea erabaki zuten: lehenbizikoa Aste Santuan, eta bigarrena udaran. Berez itzuli osoa 30 etapatan egiteko pentsatuta dago, baina eurek etapa horiek 40 egunetan egin zituzten, erritmo lasaiagoan.

Bidaiak txundituta utzi ditu Mikel, Rosa eta Eki. Bereziki, Euskal Herriaren aniztasun paisajistikoak erakarri ditu. “Etapako bakoitzean ikusten dituzun parajeak erabat desberdinak dira. Ibilbidea oso anitza da, eta ez da erraza topatzea aldaketa hori beste toki batzuetan egun batetik bestera”, dio. Euskal Herriko zazpi herrialdeak eta zazpi hiriburuak zeharkatu dituzte: Zuberoako baserri-giroak zein Nerbioi ezkeraldeko hiri-giroak, Urumeako hezetasuna eta Bardeetako idorra, Isturitzeko antzinatasuna eta Kursaal-eko modernitatea, Arabako Lautadako ordokia eta Pirinioetako maldetako gertutasuna...

Parajeez gozatzeko ez ezik, Euskal Herria bizikletaz ibiltzeko egokitasunaz ohartzeko ere balio izan die bidaiak. Sorpresa hartu dutela aitortu digu Mikelek, uste ez bezala, Euskal Herria oso toki aproposa delako bizikletaz ibiltzeko: “Ibilbide oso txukunak ditugu, eta bide berdeak edo garai bateko trenbide sareak ere nahiko zabaldua daude, nahiko kilometro daude, eta nahiz eta gure orografia menditsua izan, oso toki aproposak daude bizikletaz ibiltzeko”. Kuba, Costa Rica, Singapur, Malasia, Thailandia eta Kanbodian egon izanak aukera eman die, halaber, Euskal Herriak bizikletaz ibiltzeko ematen duen aukerarekin parekatzeko. “Ongi gaude, baina oraindik hobetzeko aukerak ditugu. Zentzu horretan oso aproposak izango dira hainbat tokitan abiatu nahi dituzten mugikortasun egitasmoak, bidegorrien sareak luzatuko direlako”.

Gida: zehatza eta landua

Bidaiaren ibilbidearen barruan kokatu zuten hasieratik gida egitea. Mikelek eta Rosak Euskal Herrian modu horretako argitalpenik merkatuan ez zegoela bazekiten, daudenak nahiko zaharkituta gelditu direlako edota proposatzen dituzten ibilbideak gogoregiak direlako, errepidetik edo menditik joateko eginda baitaude. “Eta hori, hain justu, gure filosofiaren kontra doa, gu saiatu baikara gure ibilbideak ahal den neurriak errazak jartzen”, argitu digu. Eta asmo horri helduta, batez beste etapa bakoitzeko 40 km egitea, eta malden igoera 750 metrokoa izatea lortu dute. Modu horretan erdietsi



eki, abenturarik handiena

“Bera izan da bidaia honen abenturarik handiena”. Horixe da Eki etxeko txikitxoaz hitz egiterakoan Mikelek nabarmentzen duena. Ume txiki batekin bizikletaz bidaia egitea “gogorra eta neketsua” izan den bezala, “esperientzia polita” eta “irakaskuntza berria” izan dela dio. Bidaiaren lehen zatia egin zutenean, iazko Aste Santuan, Ekik 9 hilabete baino ez zituen, eta bigarren zatia egiterakoan, 11 hilabete. Bigarren zatian hobeto moldatu ziren semearekin, aurreko esperientziatik eskarmetu txikia bazutelako, eta hobeto planteatu zutelako bidaia. “Bidaiatzen ikasten den gauza bat da, eta ume batekin ere ikasi behar duzu, kontuan hartu behar dena da atsedetik ez dagoela”, azpimarratu du. Gurditxoan goxo-goxo egin zuen bidaia osoa Eki-k, lokartuta denbora gehiena. Kanpin-dendan lo egiten ere ederki moldatu zen. Hala ere, batzuetan gauak zailak izan ziren, eta gurasoek pazientzia pixka bat ere izan behar zuten berarekin. Dena dela, esperientzia baikorra izan dela argi du Mikelek, bai beraiarentzat, baina baita Ekirentzat ere: “Guk oso momentu onak pasa ditugu, eta bera ere oso kontent ikusi dugu”. Ekirekin esperientzia errepikatzeko prest daude Mikel eta Rosa, umeak orain 20 hilabete ditueenez, errazago ikusten dutelako berarekin bidaiatzea. “Seguru zerbait potoloagoa egiteko gai bagarela”.

dute Santiagoko Ibilbidea egiten duen pertsona batek, esaterako, erraz asko egin ahal izatea eurek egindako bidea, eta urrutira joan gabe, gainera.

Gida oso zehatza egin dute. Etapa bakoitzaren deskribapenean zaletuak behar duen informazio guztia sartzen ahalegindu dira: afixa tekniko zehatza, ibilbidea erakusten duen mapa bat, etaparen aurkezpena, malden deskribapen bat eta zenbait helbide interesgarri. Euskal Herriko orografiari begira, berriz, esfortzu handia eskatzen duten ibilbideak baztertu dituzte, eta horregatik, ia ibilbide guztiak leku erosoetatik doaz. “Ibilbidearen %90 bizikletan ibiltzeko modukoa da, eta gehienetan trafikoak ez digu enbarazurik egin. Ahalegindu gara jabego pribatuetatik urrun ibiltzen, eta ibilbideak ez dira errepikatzen, hau da, ez dugu leku berdinetatik bi aldiz pasatu behar”. Ibilbide “borobilak” jasotzen ditu gidak, hau da, toki berean hasi eta bukatzen direnak, eta kasu batzuetan dena bizikletaz egiten da, baina beste batzuetan itzulerako bidea egiteko trena erabiltzen da. Horrekin batera, etapa bakoitzaren helmuga aterpetxe edo kanpin baten ondoan kokatu dute.

Gidaren erabiltzaileari dagokionez, bi ezaugarri kontuan hartu dituzte. Batetik, uste dute txirringaz ibiltzeko ohitura duenak liburuan proposamen interesgarri batzuk topatuko dituela. Baina, beste alde batetik, euren nahia izan da inoiz bizikletaz bidaiatu ez duenak hasteko aukera izatea etxe inguruan dituen ibilbideekin. Horrekin batera, Euskal Herriko jende euskalduna ezezik, kanpokoek ere gida erabiltzea da euren ametsa, eta, horregatik, hasieratik garbi izan zuten gida euskaraz eta gazteleraz atera behar zutela. “Gure nahia da hemengo euskaldunentzako tresna bat izatea beraien herria hobeto ezagutzeko, baina baita kanpotarrentzat baliagarria izatea ere”.

Gainera gidarekin batera, proiektua ezagutarazteko bideo-proiektzioak eskaintzen ari dira Euskal Herriko hainbat tokitan. Hauetan bidaiaren kontakizuna ume baten ahotan jarrita dago. Hau da, Ekik kontaktatu azaltzen dute bidaiaren kronika, azpitu-luen bitartez: bere lehenbiziko bidaiaren deigarria egin zaiona, ikusten duena, animaliekin, paisiarekin edo bertako jendearekin duen harremana...

Euskal Herriko itzulia amaituta, beste bidaia batzuei ekiteko gogoz dira Mikel, Rosa eta Eki. Momentuz, baina, ezer ez dute zehaztuta. Gainera, une honetan erritmoa etxeko txikitxoak zehazten duenez, lasai hartuko dute ■



ALBOKA

HERRIKO ALBOKARIEN VI. TOPAKETA EKAINAK 2, DELIKA HERRIAN (ARABA)

Ekainaren 2an 'Alboka Topaketa Herrikoia' seigarren edizioaz gozatu ahal izango gara Arabako Delika herrian. Bere xede nagusia alboka soinu-tresna sustatu eta ezagutaraztea da, bere garapena eta berrikuntzak plazaratuz.

Jaialdiak Euskal Herri osoko albokari eta panderojoleak biltzen ditu, baina baita beste soinulari asko ere, tartean txistulariak, trikitilariak eta perkusio etnikoetan dihardutenak. Horretaz gain, ikus-entzuleen presentzia urtez urte handituz joan da.

Urtero arabako herri bat aukeratzen dute ospakizun honetarako, landa inguruko herri txikia izatearen baldintzaz. Aurrekoetan, otazu, albaina, zalduondo, lantziego eta berriz otazun gauzatu da. Aurten Amurrioko udaleko Delika herrian izango da, Arrastaria bailaran.

Alboka Topaketa honekin euskal kulturaren berezko alor batzuk ezagutarazi nahi dira, albokaren bitartez. Albokak mendeetan zehar euskarari loturiko hainbat usadio eta tradizio gordetzen lagundu du, eta gaur egungo gizartean bermoldatzeko eta eraberritzeko ahalmen handia erakutsi du, betiere, euskararen erabilerari loturik.

Era berean, Arabako landa giroko herri eta eskualde ezberdinak ezagutarazi nahi dituzte, ikusle ugari erakartzen dituen ekintza kultural baten bitartez.

Topaketaren beste helburuetako bat albokaren antzeko soinu-tresnen ezagutza izaten da, beste kulturetan garatutako tradizio musikalak gurera ekarriz. Horrela, Sardiniako launeddak izan zituzten Zalduondon, edo Hungariako gaita Lantziegon.

Aurten iberiar penintsulako bi soinu-tresna izango dira ikusgai, bi talde ezberdinen eskutik: Madrilgo gaita serrana eta Cadiz-eko gaita gastoreña, hain zuzen.

Ekimenaren antolatzailea Otazuko Sorginetxe elkarteak izan ohi da, tokiko elkarteekin lankidetzan; aurtengoan, Amurrioko Ziripot dantza taldearen txanda dugu ■



Egitaraua

- 11:00: albokarien topaketa
- 11:30: alboka kalejira herrian zehar (kalejira amaitutakoan hamaiketako)
- 13:30: albokarien ekitaldia, berrikuntzak erakutsiz
- 15:00: herri bazkaria. Jarraian bazkalondoa eta bat-batekotasuna
- 18:30: alboken zozketa
- 19:00: kontzertuak
 - >miguel nava & rafa martin (gaita serrana madrid & zanfona)
 - >txitu & luis payno (gaita gastoreña cadiz & rabel)
- 21:00: txitxiburduntzia eta jaiaren amaiera

GIDATU

“Entitate pribatua gara, baina zerbitzu publikoa eskaintzen ari gara”



ivan del caz, gidatu aldizkariaren zuzendaria

Arabako aisialdia, kultura eta turismorako gida da Gidatu. Lau urte bete ditu aurten eta dagoeneko erreferentzia bilakatu da Araban eta Gasteizen. Hemen izandako arrakasta ikusita, Bizkaia eta Gipuzkoarako jauzia eman nahi du etorkizunean. Hala kontatu digute Ivan del Caz zuzendariak eta Cristina Villoria erredaktoreburuak.

t. edurne begiristain

a. edorta sanz

Lehenik eta behin, kontaguzue nolatan sortu zenuten Gidatu aldizkaria.

IVAN- Dagoeneko 50 zenbaki kaleratu ditugu. Duela lau urte sortu zen, tamaina txikiago batekin, Bilboko 'La Ría del Ocio' aldizkariaren ildoari jarraiki. Izan ere, Gasteizen ez zegoen gisa honetako argitalpenik. Gidatu sortu eta urtebetera, aldizkaria elkarrekin egiteko proposatu ziguten orduko sustatzaileek. Hala egin genuen, formatua aldatu genion, eta orrialde, tamaina zein eduki aldetik handitu genuen. Agendari garrantzi itzela ematen diogu, Araba osoan berrehundik gora informazio gune ditugu, haien bitartez lortzen dugu agenda osatzea. Handituz joan gara, eta oso harro gaude. Dagoeneko 30.000 irakurle baino gehiago ditugu hilero, hortaz, herrialdean komunikabide indartsua garelako esan daiteke.

Denon eskura dago Gidatu: tabernetan, dendetan eta aisialdirako gune askotan topatu daiteke. Zein da banaketa era?

CRISTINA- Banatzeko modu asko ditugu. Batetik, gure orrialdeetan iragartzen den edozein bezerori bidaltzen diogu. Bestetik, hainbat erakundek ere jasotzen dituzte aleak. Eta orain, banaketa sistema berria abiatu dugu, Arabako kiosko guztietan salgai jarritz. Arabako zenbait herrixkatarak iristeko arazoak genituen orain arte, baina salgai jarrita denon eskura jartzea lortu dugu.

IVAN- Arabak ez du biztanle askorik, baina Gidatu-ren eskaria oso handia da, hilerio 8.000-9.000 ale inguru ateratzen ditugu, nahiz eta jakin askoz ale gehiago kontsumituko liratekeela. Gu ez gara elkarte bat, enpresa pribatu bat baizik, eta gure finantziario iturri bakarra aldizkaria da.

Zeintzuk dira zuen informazio iturriak? Zerk dauka kabida Gidatu-n?

CRISTINA- Dena da informazio iturri guretzat. Gasteizen eta Araban edozein jarduera antolatzen duen pertsona, elkarte edo talde informazio iturri da guretzat. Araba osora zabaldu nahi dugu, eta ahaleginak egiten ari gara herri txiki guztietako informazioa biltzeko. Ez dizkiogu atek deusi ixten. Agendan sartu daitekeen edozer ekintzari tokia ematen diogu.

Lau urte bete ditu Gidatu-k. Uste duzue jada erreferentzia bilakatu dela Gasteizen?

IVAN- Bai. Basamortu handiena igaro dugula uste dut, argitalpen batentzat lehen hiruzpalau urteak gogorrenak baitira. Orain oso sendotuta gaude Gasteizen, eta sendotzeko bidean gaude Araban ere. Gure nahia da bide horretan jarraitzea, eta gero eta indartsuagoak izatea. Entitate pribatu bat gara, baina zerbitzu publikoa egiten ari gara, eta beste inork eskaintzen ez duena eskaintzen ari gara. Erreferentzia bat garela erakusten duen datu bat da erakundeek imitatu egiten gaituztela.

CRISTINA- Gehienbat formatu aldetik imitatzen gaituzte. Baita edukian ere: orain arte kultur-agendarik ez zuten argitalpenek sartu egin dituzte agendak...

IVAN- Bai, beste komunikabideetan eragina dugula uste dut. Gidatu jaio zenetik, nabaritu egin dugu irratietan, eta egunkarrietan kultura gehiago sartzen dela, eta Araban kulturari buruzko informa-

zioa gehiago mugitzen dela. Guretzat harro egoteko modukoa da hori.

Euskara bultzatu nahi dugu, baina egungo errealitateak aldizkaria gaztele-raz ateratzea eskatzen digu.

Araba eta Gasteizen kultur eskaintza nahikoa al dago Gidatu egiteko?

IVAN- Gidatu eskuan hartuta, hilabeteko 30 egunetan zerbait egiteko aukera dagoela esan behar da. Beraz, eskaintza nahikoa dagoela argi dago. Ez dugu zertan erakundeetara jo, norbanakoek, antzerki taldeek, tabernek gauza asko antolatzen baitituzte Gasteizen eta Araban.

Euskarak tarte txikia dauka Gidatu-n. Noizko gehiago?

IVAN- Informazioa bidaltzen digunak euskaraz bidaltzen badigu, guk beti euskaraz argitaratuko dugu. Dena den, onartu behar dugu aldizkariaren %95 gaztele-raz dagoela. Zergatik? Arabako errealitate soziala halakoa delako, eta publiko gehiagorengana heldu nahi badugu gaztele-raz egin behar dugulako. Guk planteatu izan dugu aldizkariaren zati handi bat euskaraz egitea, baina ikusten genuen gure irakurleek oso gutxi erabiltzen dutela euskara, eta horregatik pentsatu genuen traba izan zitekeela euskaraz ateratzea. Euskara bultzatu nahi dugu, baina egungo errealitateak aldizkaria gaztele-raz ateratzea eskatzen digu. Hemendik hamar urtetara jendeak eskatzen baldin badigu euskaraz ateratzeko, euskarazko aldizkaria izango gara.

50 zenbakia gala berezi batekin ospatuko duzue maiatzean, ezta?

IVAN- Bai, ospatu nahi dugu. Eta horretarako festa berezia egingo dugu maiatzaren 17an, Artium museoan. Bertan, Gidatu sariak emango ditugu, uste dugulako herrialdeko kultura



cristina villoria, erredaktoreburua

eta aisialdiak merezi duela saritua izatea. Gero eta garrantzi handiagoa eman nahi diegu sari hauei, herrialdean halako sariak falta baitira.

Etorkizunari begira zeintzuk dira Gidatu-ren erronka nagusiak?

IVAN- Araban sendotzea. Baina Gipuzkoa eta Bizkaiko egoera aztertuta, ikusi dugu ez dagoela Gidatu-ren antzeko hedabiderik, horregatik uste dugu Gidatu-k jauzia eman dezakeela beste herrialde horietara. Uste dugu Gidatu-k Araban ez ezik, Gipuzkoan eta Bizkaian ere

funtzionatu dezakeela. Erronka handia da, baina baikorrak gara, irakurleen babesa dugulako ■

Gidatu eskuan hartuta, hilabeteko 30 egunetan zerbait egiteko aukera dagoela esan behar da.



erlantz urtasun antzano

GEU 1992-2007

John Lennonek: "life is what happens to you while you're busy making other plans".

1992. Europar Batasuna jaio Maastrichten. Txekoslovakia zatitu, Bosnia-Herzegovina ere bai. Hor, haatik, gerra. Soviet Batasuna deseginik, Ipar Irlandan liskarra, Los Angeles beltza sutan eta Venezuelan Chávezen estatu kolpea. Bartzelonan olinpiadak eta Indurainek, Donostiatik abiatu, bigarren aldiz tourra irabazi. Hemen, baina, Leitzarar nahiz Bidarte ospetsuago...

1992. Maiatzaren 3an, Serapio Lopezen baime-naz, Rikardo Gonzalez de Duranak arabar bertso-lariari txapela jantzi. Ekainaren 14an, Armentian, 'Arabako Euskaraz' jendetsua "ikastolan geurea lan-tzen" lelopean.

1992. Isaac Asimov, Benny Hill edo Marlene Dietrich joan ziren hartan nork espero zezakeen 15 urte pasata Geu horren sendoa zitekeela? Tartean, ezin ahan-tzi, Estitxu Breñas eta Jabi Otsa de Aldaren partez fruitu gozoa eman dio Euskal Herriari: 'Arabako Euskal Hotsak'.

Silvio Rodriguezek: "el sueño se hace a mano y sin permiso". Urte luzez, zorionak denoi!

historiazutabea

ENDIKA ZINKUNEGI XVIII-XXI. MENDEETAN

t. erlantz urtasun antzano. historialaria

XVIII. mendean gipuzkoarrek ideia bikaina ukan zuten, irakurle. Dirudienez, eta egungo industrializazioa hasi gabe zegoenez, gipuzkoarrek behar baino gehiago ziren, baserriak sortu, Ameriketarat jo, ez zuten bertze irtenbiderik.

Arabaren, berriz, hagitzez jende gutiago bizi zen eta, agiri zaharren arabera, jendearen premia zegoen herriak berpizteko, baita herri berriak sortzeko ere. Eta honatx gipuzkoarrei bururatu zitzaizena: Gipuzkoan "soberan" zegoen jendea Arabarat eraman.

Ez naiz txantxetan ari. Plangintza sakona egin zuten. Eta bertoko erakundeak ados omen ziren.

Madrilek, baina, debekatu egin zuen.

Pentsa ezazue, beharbada gipuzkoar haiei esker 1936 iritsi zenean euskararen muga bertzelakoa zitekeen, nork daki, agian 1975ean Gasteizko jende xumeak oraindik euskarari eutsiko zion, egun indar handiagoz erabiltzeko.

Endika Zinkunegi Gipuzkoatik etorri zen, XVIII. mendeko erabaki hori, laguntza hori inork debekaterik ez duenik aldarrikatzeko. Norat eta Arabar Errioxarat, egun, populazio ehunekotan, ikastola konfederakuntzak matrikulaziorik handiena duen euskal lurralderat.

Aurrematrikulazio garaian, baina, XVIII. mendeko debekapena airean pausatuta zuen Madrilek. Baina Arabar Errioxako ikastolek zutik diraute. Eta arabarrak dira, Endika bezala.

Zorionez Endika aske da. Haatik, ez dago mendez mende horrela jarraitzerik.

Bide batez, noizko "Araba Bai" hauteskundeetarako plataforma? ■

"Arabako herri izenak aldatu dira historian zehar?" (XIV)

Bada gure artean arabar eskualde berezi-berezia. Bon, hori, erran berri dudana lelokeria, topiko bat bertzerik ez da. Berezia bai, bada, baina bertze hainbat toki-izenen gisa eta, zer kontxo, ea zer ez ote den berezia gure Araban, batez ere hegoalde edota mendebaldean.

Kasu honetan, halere, eta Kike Fernandez de Pinedoren baimenaz, berak honetaz nik baino hamaika aldiz gehiago baitaki, kasu honetan zilegi bekit erratea Arabar Errioxa berezia bezain maitagarria dela, batez ere, ene bihotzak dio, Biana ondoan dena.

Harirat. Euskaltzaindiak dio "Oion" deitzen dela. Mende luzez "Oyón" irakurri behar izan dugu, halabeharrez. Aspaldi, 939. urte aldean, halere, "Ullone" isuri zuten. Geroak erranen, baina, ume diren bertako euskaldunek zer izen eman nahiko dioten... Askatasun osoz.



txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@grn.es

Sartu

ate guztiak irekitzen
dizkizun prestakuntzan

ARRIAGA
MOLINUEVO
NIEVES CANO

DIOCESANAS

EDUCACION SECUNDARIA Y FORMACION PROFESIONAL
BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA

www.diocesan.org



	BATXILERGOA	ERDI MAILAKO L.H.ko HEZIKETA ZIKLOAK	GOI MAILAKO L.H.ko HEZIKETA ZIKLOAK
ARRIAGA	Teknologia Batxilergoa (A eta D ereduatan) Natur eta Osasun Zientzen Batxilergoa (A eta D ereduatan)	• Makineria eta Linea-eroanbideen Instalazio eta Mantenimendu Elektromekanikoa • Ibilgailuen Elektromekanika	• Informatika Aplikazioen Garapena E-G • Informatika Sistemen Administrazioa • Produktu Elektronikoen Garapena • Automozioa • Industri Ekipoen Mantenimendua • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak (Elektronika) • Telekomunikabide eta Informatika Sistemak
MOLINUEVO	Giza eta Gizarte Zientzen Batxilergoa (A eta D ereduatan)	• Administrazio E-G • Kudeaketa • Ile-Apaimketa • Erizaintzaren Laguntza G	• Administrazio eta Finantzak E-G • Garraioaren Kudeaketa • Merkataritza Kudeaketa eta Marketina G • Estetika • Gizarte Integrazioa
NIEVES CANO	Teknologia Batxilergoa (A eta D) Natur eta Osasun Zientzen Batxilergoa (A eta D)	• Mekanizazioa E-G • Informatika Sistemen Ustiapena	• Mekanizazio Bidezko Produkzioa E-G • Proiektu Mekanikoen Garapena • Diagnosi Klinikoen Laborategia

- L.H.ko DIOCESIAR OBRAren Ikastetxea
- Lanbide Heziketa osoko Ikastetxea
- HEZKUNTZA SAILAren hitzartutako Ikastetxea
- JUSTIZIA ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAren babespeko Ikastetxea.
- ARABAKO LHko PARTZUERGOKO kide
- HOBETUZ eta INEMek homologaturiko Ikastetxea
- LANGAIren Ikastetxe laguntzailea
- HETELera eta Kristau Eskolara elkartutako Ikastetxea
- CAJA VITAL KUTXAren Gizarte Ekintzaren baitakoa

MENDIZORROTZA

- Jatebe eta Tabernako Zerbitzuak
- Sukaldaritza
- Pastelgintza eta Okintza

- G** Gaeuzkoa
- E-G** Egunezkoa eta gaeuzkoa
- A** eta **D** ereduatan eskaintzen diren Zikloak

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

Caja Vital Vital Kutxa

nire etorkizuna...
nekazaritzan, arrantzan, abeltzaintzan,
itsasontzian, lorezaintzan, basoan...

BAI SÍ

mi futuro...
en el campo, en actividades marítimo -
pesqueras, en ganadería, en un barco,
en jardinería, en el bosque...

Formazio Zikloak:
Nekazaritza/Itsas - Arrantza

Ciclos Formativos:
Agraria/Marítimo -Pesquera

www.itsasmendikoi.net



IMK Arkaute

01192 Arkaute (Araba)
Tel.: 945 28 53 87
Fax: 945 28 49 55
arkaute@itsasmendikoi.net

IMK Derio

Berreaga, 5
48160 Derio (Bizkaia)
Tel.: 944 54 14 21
Fax: 944 54 01 62
derio@itsasmendikoi.net

IMK Fraisoro

Elbarrena Auzoa, 2/g
20159 Zizurkil (Gipuzkoa)
Tel.: 943 69 21 62
Fax: 943 69 22 47
fraisoro@itsasmendikoi.net

IMK Pasaia

Marinos Kalea, 2
20110 Pasaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 40 40 05
Fax: 943 40 41 77
pasaia@itsasmendikoi.net



ITSASMENDIKOI

www.itsasmendikoi.net

